



Jokoan harrapatuta

Jokoaren adikzioan erortzen direnak geroz eta gazteagoak dira, baina jokoaren hatzaparretatik ateratzen laguntzeko ateak zabalik ditu Aralar Elkarteak / 2-4

Kulturarteko elkarbizitza diagnosiari ekintza planak segida emanen dio / 8-9

Sakana Sarietara 11 hautagai aurkeztu dira. Botoa emateko epea asteartean itxiko da / 12-13

Lanak egiten ari zen enpresaren gorabeherak Irurtzungo saihebidetako lanak geldiarazi dituzte / 7

Jose Luis Beraza mendi korrikalariak 53 urterekin podiumak pilatzen jarraitzen du / 16-17

Pasadena talde gasteiztarraren kontzertua, bihar, lortia kultur gunean, Berriaren alde / 21

"Ludopatia ikusezina den gaitza da, mila profil dituenena"

SAIOA YEREGI CASADO ARALAR NAFARROAKO LUDOPATIA ELKARTEKO PSIKOLOGOA Ludopatiak gora egin du. Joko adikzioa dutenak geroz eta gazteagoak dira eta emakumeak gehiago estigmatizatzen dira. Aralar elkarteak ateak zabalik ditu

Eneida Carreño eta Mainer Betelu
SAKANA
Ludopatia betidanik existitu izan den gaitza da, baina adituak kezkatuta daude jendea geroz eta

gazteago sartzen delako jokoaren adikzioak dakarren zulo beltzean. Telefono mugikorrek edonork edozein momentuan jokatu ahal izatea ekarri dute, eta emaku-

mezkoak gehiago estigmatizatzen dira. Saioa Yeregi Casado etxarriarra Nafarroako Aralar Ludopatia Elkarteako psikologoa da, eta elkarteak ateak zabalik di-

tuela adierazi nahi die jokoaren gaitzan murgiltzen direnei eta senitartekoei. Jokoaren atzaparretatik ateratzea posible delako.

Nola iritsi zinen Aralar Nafarroako Ludopatia Elkartearen lan egitera?

Donostian Psikologia ikasi nuen eta praktikak Altsasun egin nuen, drogamenpekotasun zentroan. Ondoren, Logroñon Psikologia Profesional Sanitario masterra egin nuen eta segidan Proyecto Hombre-Gizakia Helburun lan egiten hasi nintzen, Donostian. Duela bi urte Aralar Nafarroako Ludopatia Elkartearen psikologo lana egiteko aukera sortu zen eta hala hasi nintzen, elkarteak Iruñeko Arrotxapean duen egoitzan. Adikzioen inguruan lan egin izan dut beti.

Noiz sortu zen Aralar Nafarroako Ludopatia Elkarteak?

1996 urtean sortu zen, 26 urte dauzka, eta kurioz bada ere, ez da ezaguna. Ludopatia zuten pertsonen eta haien familiek sortu zuten, osasun departamentua halako gaixotasun bat laguntzen hasten denerako denbora asko pasatzen delako. Gaur egun koordinatzaile batek eta bi psikologok lan egiten dugu elkartearen,

eta 10-15 boluntario ditugu, gaixotasunaren prozesua pasa duten pertsonak. Eta elkarteko junta.

ESTIGMATIZAZIOA

Zergatik da zuen elkartearen horren ezezaguna?

Esango nuke %90 dela gaiak duen estigmatizatzen. Elkarteak barne aldera egin du lan, hau da, norbaitek laguntza behar bazuen laguntza ematen zitzaion. Baina kanpo aldera, hau da, gaixotasuna gizarteratzera ez da lan egin. Horregatik ere ez da ezaguna. Orain kanpo aldera lan egiten saiatzen ari gara, ludopatia zer den, dituen eraginak eta dauden arriskuen berri azaltzeko. Jokoaren inguruan arazoak baditugu edo halako egoera batean bagaude, jakin dezagun elkartearen existitzen dela eta beharrezko laguntza guztia emango digutela.

Elkartearen behar batetik sortu zen. Osasun Departamentuaren gabezia bat erakusten du.

Bai. Aldi berean, elkarteak aurrera egiteko duen zailtasuna nabarmendu nahi nuke. Dirulaguntza eskas batzuk ditugu eta bazkideen kuotak, baina hala ere gutxika aurrera segitzen dugu.

EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA
2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

euskaltzateen topagunea | Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua | EUSKARALDIA | euskaraldia.eus

Osasun Departamentuak ez badu gaixotasun hori tratatzen, elkar-teari dirua bideratu beharko lioke.

Elkartera datozen gaixo asko medikuetatik eta psikiatretatik bideratuta etortzen zaizkigula kontuan hartuta, askoz ere gehiago. Bestalde, Osasun Departamentuak ez ditu gaixoen familiak atenditzen, eta guk bai, zerbitzu integrala eskaintzen diogu pertsonari eta familiari. Beharrezkoa delako. Ludopatia betidanik existitzen den gaitza da, baina gaixotasun eta adikzio gisa 1980. urtean jaso zen. Ez zegoen inolako tratamendurik.

PORTAERA ADIKZIOA

Zer da ludopatia?

Zaila da azaltzen. Adikzio bat da, portaera adikzio bat. Badaude substantziarik gabeko adikzioak, eta horietatik ludopatia da gaixotasun gisa kontsideratuta dagoen bakarra. Jokoarekiko kontrol falta adierazten du. Pertsona batek edozein gauza egiten du jokatzeko, bere lana, familia, lagunak eta duen guztia arriskuan jarrita. Hasieran beti diru gutxi-rekin jokatzeko du, eta gero kopurua handitzen doa. Adikzio guztiak prozesu bat dira: beti ematen da erabilera bat, gero abusua dago eta azkenean adikzioan bilakatzen da. Frekuentzia gero eta handiagoa da, eta kontrola galtzen dute. Gezur asko esaten dituzte adikzioa ezkutatuzko.

Fikziozko zerbait balitz bezala.

Bi bizitza biziko balituzte bezala. Ludopatia ez da erraza antzematen. Kokaina adikzioa duen bati azkenean fisikoki nabaritzen zaio. Antzeman daiteke, baina jokoarekin ez. Bost urtez egon zaitezke jokatzeko, kristoren sarraskiak egin eta ondokoek zerbait arraro dagoela sumatzen dute, baina sarritan ez dakite zer den. Familia gehienek esaten digute: "bagenekien zerbait zuela, arraro zegoela, baina ez genekien zer zen". Burura etortzen zaizkigun balizko arazoaren artean normalean jokoa ez delako agertzen. Eta hori arazo handia da. Azkenean euren emozioetan desfaseak ematen dira, oso-oso pozik daude edo oso-oso triste, eta gezurretan. Ludopatia diagnostikatzeko ezaugarrietako bat gezurra esaten dutela da. Eta dirua faltatzen hasten denean...

DIRUA, BETI TARTEAN

Ludopatia kasu guztietan diru falta dago?



Saioa Yeregi Casado, Beleixe irratian.

Dirua tartean dago beti. Jokatzeko dirua behar da, eta kontrola galtzen dute. Kasu batzuetan zor erraldoiak sortzen dituzte, 100.000 eurotara ailegatu daitezkeenak, edo gehiago. Beste kasu batzuetan duten dirua jokatzeko dute, baina ikusten dute kontrola galdu dutela eta laguntza eske etortzen dira. Izan daiteke ere mikrokredituak eskatzen dituztela eta mailegu emailen eskutuan erortzen direla. Denetatik.

Mailegu-etxeena, beste arrisku bat.

Bi mailegu multzo daude: bankuan eskatzen diren maileguak, legalak direnak, eta mikrokredituak, interes oso handiak dituztenak eta legalak ez direnak. 1.000 euroko mikrokreditua eska dezakezu eta hilabete batean agian 5.000 euro zor ditzakezu. Eta agian beste kreditu bat eskatuko duzu. Ludopatia batek beti baitu buruan jokatuz gero diru hori berreskuratzeko aukera izango duela. Eta horrela arazo guztia konponduko dela. Eta lortzen duen bakarra da sorgin gurpil horretan gehiago sartzea.

Duela gutxi emazte batek esaten zigun: "bizi guztia daramat berarekin, haur txikiak ditugu eta orain konturatu naiz 10 urte daramatzala jokoan, azken 5 urtetan genuen diru guztia gastatu duela, azken 5 hilabeteko alokairua ordaindu gabe dugula eta ez dugula zerekin ordaindu. Norekin bizi izan naiz? Nor da pertsona hau?".

Badirudi ezinezkoa dela halakoez ez konturatzea.

Egunero ikusten dugu. Pertsona bati gertatu ahal zaizkion balizko arazoaren aukeren artean jokoa ez badago, nola ikusiko duzu?

Jokoaren adikzioa ikusezina den gaitza da.

Ikusezina den gaitza eta mila profil dituen. Adikzioak sarrera gutxi dituzten familietan eta familia desegituratuetan gertatzen direla uste da askotan, baina ludopatia ez doa hortik. Edozeinek gara dezake gaixotasun hau, ez dago profilik. Ludopatia txanpon makinan jokatzeko duen gizon helduarekin lotu ohi izan da. Eta gaur egun ez da horrela. Txanpon ma-

kinan jokatzeko duen ludopatak daude, baina orain laguntza eskatzera datozen pertsona gehienek 30 urte baino gutxiago dituzte, gehienbat gizonezkoak dira, kirolari oso lotuta daude eta bereziki kirol apustuetara jokatzeko dute.

MUGIKORRA, BONBA HUTSA

Badirudi garai batean publikoki jokatzeko zela gehiago, tabernetako txanpon makinetan eta joko aretoetan, baina orain agian pribatuki

"JOKOA SOZIALKI ONARTUTA DAGO. TOKI GUZTIETAN DAGO. ARRISKUTSUA DA, ETA EZ GARA KONTZIENTE"

"JOKO ADIKZIOA BADUGU ETA MUGIKORRA BADUGU, SEKULAKO BONBA DUGU ESKU ARTEAN"

jokatzeko da gehiago. Apustuak etxetik egiten dira.

Ordenagailuek eta telefono mugikorrek ekarri dute edonork edozein momentutan eta edozein tokian jokatu ahal izatea. Adikzio prozesua izugarri azkartzea ekarri dute. Guztiek mugikorra dugu, zertan ari garen inork ez du ikusten eta edozein unetan egon ahal gara jokatzeko edo apustuetan. Gure sareetan eta posta elektronikokoan apustu etxeen edo joko etxeen informazioa jasoko dugu etengabe. Adikzioa badugu eta mugikorra beti gainean badugu, sekulako bonba dugu esku artean. Jokatzeko moduari dagokionez, jokoa presentzialki hasten da, lagunekin, baina adikzioa duenak isolatzen bukatzen du, ezkutatzen da, jendeak mugikorrarekin etengabe dabilela ez ikusteko.

Nola iristen da pertsona bat ludopatia izatera?

Faktore pila bat nahasten dira, baina jokoak zeinen arriskutsuak diren ez gara kontziente. Jokoa toki guztietan dago eta sozialki onartuta dago. Orain Gabonetako loteriarekin gabiltza bueltaka eta ongi ikusita dago. Ea tokatzen zaigun! Hori ere transmititu egiten da. Alkoholaren antza du, alkohola ere sozialki ongi ikusita baitago. Jokoa ere sozializatze erabiltzen dugu. Adin txikiko askok kuadrillan jokatzeko dute. Apustu bat egiten dute, partidari emozio txiki hori emateko. Gehiengo erabilera bakararekin geratzen da eta hortik ez dira pasatzen, baina badago pasatzen den jendea. Pentsa, noizbait apustu batean 2.000 euro irabazi baditugu, eta ondoren autoa konpontzeko diru asko gastatu badugu zergatik ez dugu beste apustutxo bat egingo diru hori berreskuratzeko? Hori da adikzioa duten bati buruan aktibatzen zaiona: "goazen joko aretora dirua berreskuratzera".

Zerk bulkatzen gaitu jokatzera?

Normalean hiru arrazoiengatik jokatzeko da. Lehena, diru lortzeko. Bigarrena, emozio negatiboak kudeatzeko. Jokoa beste substantzia batzuk bezalakoa baita, anestesia handia; jokatzeko hasten zarenean zure burua lasaitzen da eta dituzun arazoetan ez duzu pentsatzen. Eta hirugarrena, euforiarengatik. Partidaren emaitza asmatzen badut eta lagunak irabazi dudala ikusten badute, a ze subidoia. Sarritan, hiru arrazoi horiek nahasten

dira, eta gero eta gehiago barneratuta, konturatu gabe adikzio bat izatera pasa zaitezke. Ez beti, baina kasu askotan bai.

FAMILIAK, EZINBESTEKOAK Zein paper jokatzen dute familiak?

Oso garrantzitsua. Gaixo batzuk kontziente dira duten arazoak eta eurak dira guregana etortzen direnak, baina gutxi dira. Gehienetan familiak edo gertukoak dira elkartera etortzeko lehendabiziko pausoa ematen dutenak. Guk lan asko egiten dugu familiekin. Batetik, gaixoari ezinbesteko laguntza ematen dielako. Gaixo guztiek babes pertsona izeneko figura bat dute, euren sendabide prozesuan bidelagun dutena. Bestetik, senitartekoak ere gaizki daudelako.

Zein da osatze prozesua?

Hasteko, monitore batek gaixoari prozesua azalduko dio. Monitorea aurretik prozesua pasatu duen boluntario bat da. Egoeraren ebaluazio bat egiten dute. Ondoren, gaixoak psikologoarekin hitzordua du, eta gero familia bilduko da psikologoarekin. Hurrengo hitzorduan gaixoa, familia eta psikologoa elkartzen gara eta berehala gaixoa terapietan hasten da. Aste-rotalde terapiak ditu eta hila-beteen behin terapia indibiduala. Familiekin hamabostero talde terapia dute eta behar dutenean terapia indibiduala. Prozesuan gaixoari kontrol ekonomiko handia egiten zaio. Pertsona horrek bere bizitza normalean dituen gastuak zehazten dira eta soilik gastu horietarako dirua emango zaio. Gaixoak diru horrekin zer egin duen justifikatu beharko du.

Beraz, etxekoak gaixoaren gastuak kontrolatu behar dituzte.

Bai, eta familia horren rola asko aldatzen dira. Esaterako, zure bikoteak zure gastuak kontrolatu behar ditu bat batean, edo zure amak edo aitak esan behar dizu dirua non gastatu behar duzun eta non ez. Familian aldaketa handia da, baina beharrezkoa. Izan ere, euro bakar batekin jokatu ahal da eta arriskua hor dago, jokora sarbidea edozein lekutan baitago: telefonoan, tabernan, joko etxeetan...

AUTO-DEBEKUA

Nola kontrolatu telefonoetatik apustu etxeetara ez sartzea?

Gaixoekin "auto-debekua" deritzogun prozesua egiten dugu. Hau da, zuk zure buruari jokatzeko debekatu diozu. Instantzia bat betetzen da eta estatuko zerbitzuetara bidaltzen da. Badu bere lana. Instantziaren baieztapena jaso ondoren, online jokoaren linea moztuko zaio pertsona horri eta ezingo du online jokatu. Horrek asko laguntzen du. Joko presentzialak probintzia bakoitzak kudeatzen ditu. Nafarroari dagokionez, hiru kirol apustu etxe, hiru bingo eta sei joko areto daude, horietako bat Altsasun. Horretaz gain, tabernetan 2002 txanpon makina eta 860 kirol apustu makina daude. Nafarroan auto-debeku prozesua egiten badugu, online sarbidea kentzen digute eta bingoetara sarbidea moztu, baina edozein taberna eta joko aretoetan sar gaitzke. Uztailean Jokoaren Lege berria aterako da eta aztertzen ari dira auto-debekua dutenei eta adin txikikoei joko aretoetan sarbidea nola debekatu.

Legediak zerbait gehiago jaso beharko luke?

"GEHIENAK GIZONAK DIRA, 30 URTE BAINO GUTXIAGO DITUZTE ETA KIROL APUSTUETAN JOKATZEN DUTE"

Zerbait aurreratu da, baina asko falta da egiteko. Hutsune asko daude. Jokoaren publizitatearen inguruan, telebistan eta irradian soilik goizaldean jarri ahal da publizitatea, 01:00etatik 05:00etara edo 6:00etara, Loterías del Estado eta Once kanpo. Baina Sare Sozialak nola kontrolatu? Gaur egun gazteek Instagram erabiltzen dute gehien, eta hor ez dago mugarik. Txanpon makinak lege berrian ez dira inon sartzen eta berdin jarraituko dute. Asko dago egiteko.

Atzean interes handiak egongo dira. Izugarriak. Honen guztiaren atzean enpresak daude, dirua irabazten duten enpresak.

Norbait jokoari lotutako arazo bat badu Aralar Ludopatía Elkartearen atea zabal-zabal dituzue.

Etor daitezela lasai asko, bai gaizki daudenak, euren senitarteko eta lagunak... informazio guztia eta laguntza emango diegu. Asociación Aralar gure webgunean sartuta posta elektronikoa edo telefonoak daude. Gure elkarteak gizarteratu nahi dugu, jendeak hor gaudela jakiteko. Institutueta eta ikastetxeetara ere joaten gara gure elkartearen berri ematera, joko adikzioa dutenen adina asko jaitsi delako. Gaur egun gaztetxoak 14,7 urterekin hasten dira batz bestea online jokatzeko eta 14,6 urterekin joko presentzialetan.

Adin txikikoei ezin badute legez jokatu, nola moldatzen dira?

Online jokatzeko Nortasun Agiria behar da, eta askok gurasoena sartzen dute. Bestalde, kirol apustu etxeetan txartel bat egin daiteke, eta txartel horrekin kirol apustu makinetan jokatu daiteke. Gainera, bankura joan eta identifikaziorik gabe txartel horrekin dirua atera daiteke. Aste honetan 18 urteko gazte bat etorri zaigu. Lanean hasi da, eta bere lehen hiru soldatak berehala gastatu zituen; hilabeteko hirugarren egunerako ez zuen dirurik. Bere kabuz jokoa uzten saiatu zen, ez zuen lortu eta laguntza bila etorri zen.

EMAKUMEAK ETA JOKOA

Emakumeen ludopatía jarri duzue erdigunean. Zergatik?

Jokatzen duten hiru pertsonetatik bat emakumea da, eta horietatik soilik %10 edo 20 iristen dira elkarteetara. Zerbait gaizki egiten ari gara. Emakumeen rola zaintzari lotuta egon izan da beti: etxekoak zaindu eta lagundu. Hori barneratua duen emakume

"JOKATZEN DUTEN HIRU PERTSONETATIK BAT EMAKUMEA DA, BAINA SOILIK %10-20 DOAZ ELKARTEETARA"

bati gehiago kostatzen zaio laguntza eskatzea eta adikzio bat duela aitortzea. Askoz ere gehiago estigmatizatzen dira emakumeak. Gure elkarteak %10 emakumeak dira. Gizonak 18 urterekin has daitezke jokoarekin arazoak izaten, eta gehienbat kirol apustuetan jokatzen dute, arriskua eta trebetasuna lantzen diren jokoetan. Emakumeak, aldiz, beranduago hasten dira, euren zaintzaile rola bete dutenean, 40 urte ingururekin, eta gehienbat bingoan eta txanpon makinetan jokatzen dute. Oso ezberdina da. Bitxia den beste datu bat da elkarteak dauden gaixo gehienak gizonak direla, baina haien babes pertsona gehienak emakumeak direla. Laguntzen gehienetan dago ama, emaztea edo alaba.

Emakumeek beranduago eskatzen dute laguntza.

Emakumeek isolatuta jokatzen dute, eta normalean okerrago iristen dira elkartera, bai fisikoki eta baita arazo gehiagorekin, gehiago aguantatzen dutelako. Oso gaizki daude, karga emozional handiarekin. Gaietan daramaten motxila izugarria da. Baina behin etorrita, prozesua hobea da. Kontzientekoak dira, gehiago konprometitzen dira eta prozesua azkarrago egiten dute. Horregatik egin dugu emakumeen kanpaina. Emakumeren batek arazoren bat badu identifikatu dezan, eta jakin dezala hor gaudela eta honek irtenbidea duela. Bestalde, talde terapietan agian egon daitezke 14 gizon eta emakume bat, eta bakoitzaren beharrak eta dinamikak ezberdinak dira. Asko dago lantzeko.


FORMAZIOA

Aralar Ludopatía Elkartearen ere ludopatiaren inguruko formazioa eskaintzen duzue.

Formakuntza saioak eskaintzen ditugu familiendako, gazteendako eta profesionalendako, eta baita teknologia berriei buruzko formazioa, euskaraz eta gaztelaniaz. Baita ikastetxeetan ere. Formazio hauek diruz laguntzen dira. Eta prebentzio tailerrak ere eskaintzen ditugu.

Pandemiak ludopatía kasuetan eragina izan al du?

Bai. Orain etortzen ari zaizkigun kasu gehienak pandemia garaian hasi ziren jokatzen. Pandemiaren online jokatzeko aukera zegoen, eta etxean sartuta hainbeste denborarekin, sekulako booma izan zen. Aparteko eragina izan zuen.





ASTEKOA

RAF ATXURI

Qatar. Futbolkraziaren orratz pozoitsuak

Munduko futbol-txapelketa hurbildu ahala Qatar da galdera. Baina erantzuna ez dugu erraz aurkituko, Walt Disney faktoriako azalpen goxotu epelak nahi ez baditugu behintzat. Eta galderak giza eskubideen alorrera doaz bata bestearen atzetik, izan ere: zein da emakumeen egoera, zein homosexualena, zenbat langile hil dira eraikuntza istripuetan edo lan baldintza ankerrengatik?

Mundu Txapelketa non egiten den. FIFA dugu hau guztiaren arduradun eta erabaki hartzaile, eta badakigu ongi dakigunez, futbol federazioak orohar, zenbat handiago hainbat ustelago direla. Eta zer esanik ez FIFAREN historia, ustelkeriaren eta gardentasun faltaren historia da.

FIFAK, beraz, zer dio Qatarako egoeraz giza eskubideei dagokienean? Walt Disneykeriak dira erantzunak, eta business eta txin-txin hotsaz besterik ez omen daki FIFAK.

Hala ere, galderak (eta susmoak) zutik darrai. Zer gertatu/gertatzen da Qatarren? The Guardianek 6.500 hildakoren kopurua eman zuen, Qatarako gobernuak heriotza "naturalak", bihotzeko gaitzak aipatzen ditu, eta ikertzeko atea itxi. Amnistia

BUSINESS ETA TXIN-TXIN HOTSAZ BESTERIK EZ OMEN DAKI FIFAK

Internazionalak eskandalua berretzi du.

Erantzun garbirik ez dago baina ixiltasun astunak garamatza ezinbestean gaizki pentsatzera, halako moldez non Frantzia, Norvegia,

Danimarkan molde bateko eta besteko protesta ekintza leunak burutzen ari dira, nor eta udalak edo enpresa handi zenbait. Alegia, eta nola erran... eta barkatu, baina protesta "burges" samarrak nire ustez. Eta miraz nago Europako klase sindikatuek ez dutelako ja ere esan, milaka langileren heriotzaren aurrean. Seguruenez oso zaila da ebaztea zenbat hil diren, baina salaketa bera larria da oso. Euskal Herrian banan-banan zenbatzen ditugu urtean zehar lan istripuetan hiltzen direnak, Europan seguruenez antzeratsu. Irensteko zaila.

Nik neronek Qatarakoari boikota.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



Xanduli, manduli, kikirriki... eman goxokiak guri!

Gau Beltza ospatu zuten Sakanako txoko desberdinetan. *Xanduli, manduli kikirriki... eman goxokiak guri!* eskatuz joan ziren batzuk eta *Sari edo*

ziri kaleetatik haurrak, poltsak goxokiz bete zituzten arte.

Kalabazak hustu, aurpegi itxura eman, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan jarri

zituzten, bizilagunak beldurtu eta hildakoen arimek bidea erakusteko.

Plazako suan gainera, beldur guztiak erre zituzten.

Telegram kanala

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirrolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Bilaketak segitzeko eskaera egin dute

Fusilatu zituzten hiru ubertearrak eta bestelako errepresio moldeak jasan zituztenak gogoan izan zituzten igande eguerdian. Fusilatu zituzten bi uhartearrak opatzeko lanak segitzea eskatu zuten bildutakoek

UHARTE ARAKIL

Frankismoak eraildako eta errepresaliatutako ubertearrak gogoan izan zituzten Herriko seme-alaben plazan egindako ekitaldian igande eguerdian. Uhar-te Arakilgo Udalak eta 1936-2016 Uhar-te Arakil 80 urte memoria galtzen taldeak antolatu zuen ekitaldia. 1936ko estatu kolpearen ondoren hainbat ubertearrek errepresioa jasan eta haietako hiru hil zituzten. Victor Martirena Alegria (22 urte) 1936ko lastailaren 28an fusilatu zuten Iberoko Zurbao parajea. Silverio Astiz Ezkurdia (59 urte, alkatea) eta Silverio Astiz Lakuntza (21 urte) aita-semeak ere fusilatu zituzten, baina Martirenarena ez bezala haien gorpuak ez dituzte opatu oraindik.

Iganderako udalak plazako iturria eraberritu eta txukun utzi zuen, hego haizeak eramandako hosto asko zeudelako. 1936-2016 Uhar-te Arakil 80 urte memoria galtzen talde antolatzailako Gaizka Uhar-te Baldak hitza hartu eta eraildako eta errepresaliatutako ubertearrendako justizia, erreparazioa eta oroimena eskatu zituen. Horrekin batera, Astiz familiarriako bi fusilatutako eta desagertutakoak opatzeko lanak segitzea eskatu zuen.



Ekitaldian parte hartu zutenen talde argazkia. UTZITAKOIA

Bestetik, aurrenekoaren senide Hermogenes Goñi Martirenak fusilatutako hiru gizonezkoak eta errepresaliatu ubertear guztiak gogoan izan zituen. Eta haiekin batera bereziki gogoan izan zuen aurten hil den Pilar, Astizdarren alaba eta arreba zena. Erakundeek eta Aranzadi zientzia elkarteak memoriaren arloan egindako lana eskertu zuen. Goñik jakinarazi zuenez, berriki Ana Olo Hualde Herri-tarrekiko Harremanetarako kontseilariarekin eta Josemi Gaston Aguas Memoria Institu-

tuko Historia Memoriako zuzendariarekin hitz egin zuen. Gari-lean Paternaingo hobi batetik Aranzadi gutxienez hamar eraildakoren gorpuzkiak atera zituen. Haiek identifikatzeko lanetan ari direla gaztigatu du.

Etengabeko ur emaria duen iturritxoaren bueltan idatzia dago Castillo Suarezzen *Irribarre egiteko* olerkia. Hura idazteko alkate ohiaren gutunetan oinarritu zen. Poesiaren irakurketa-rekin, minutu bateko isilunearrekin eta lore eskaintzarekin despeditu zen.



Astelehenean, 12:00etan, Altsasuko Zumalakarregi plazan bilkura eginen dute.

Ibarrean jasotako 700 sinadura Diputatuen Kongresuan

Pentsio duinen aldeko mugimenduak guztira 220.000 sinadura aurkeztu zituen

SAKANA

Joan den urteko eta aurtengo pentsioak urte arteko Kontsumo Prezioen Indize (KPI) metatuaren pare eguneratzea. 2021ean eta 2022an jaso ez zuten dirua urtea despeditu aurretik kobratzea. Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatuko den gutxieneko pentsioa. Lanbide arteko Gutxieneko Soldata batz besteko soldataren %60 izatea. Aldarrikapen horiek jasotzen dituen gutuna eta bilera eskaera egin die pentsio duinen aldeko mugimenduak Kongresuan ordezkatutako talde guztiei, Vox-i izan ezik. Eskaera 220.000 sinaduraren babesarekin aurkeztu zuten. Haietako 700 Sakanan jasotakoak.

Bestalde, pentsio duinen aldeko mugimenduak azaroaren 19an, larunbatarekin, mobilizatza deitu du. Deialdia hainbat gizarte erakunde eta sindikatu-

rekin batera egin dute. "Pentsio duinen eta langile klaseen bizi baldintzak larriki okertzen ari diren inflazioaren eta prezioen igoera eskandalagarriaren aurrean" hainbat aldarrikapen zabaldu nahi dituzte, esaterako: "pentsioen eta soldaten erosteko ahalmena berreskuratzeko premia larria, horretarako, horiek urteko KPI metatuaren arabera handituz; soldata eta pentsioen genero arrakala ezabatzea eta zerbitzu publiko unibertsalak bermatu eta hobetzea". Horregatik, aberastasuna zuzen banatzea eskatu dute. Bestetik, mugimendutik Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuei eskatu die "beste alde batera begiratzeari" uzteko eta "pentsio publiko duin eta nahikoak bermatzeko 2023ko aurrekontuetan gutxieneko pentsioa 1.080 eurora arte osatzeko erabakia har dezatela".

Elkartasuna praktikan jartzeko deia egin dute

Erabiltzen ez den arropa jaso eta Iruñerriko Elkarri Laguntza elkarteari emateko bilketak hasi dituzte

IRURTZUN

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak eta Itxipuru taldeak Elkarri Laguntza elkartearen aurkezpena antolatu zuten. Pikuxarren ikusgai egon den argazki erakusketaren nondik

17 pertsonak entzun zituzten Elkarri Laguntza elkartearen kide baten azalpenak. Elkartearen sorreraren nondik-norakoak azaldu zituen, zer egiten duten, Pikuxarren ikusgai egon den norakoa eta beste. Iruñerrian bizitzen ari den errealitate gordinaren berri eman zuen. Horrekin batera, sakandarrei esker ona adierazi zien Elkarri Laguntza elkartearen kideak, izan ere, hainbat ekimenen bidez, ibarretik asko jaso dutelako. Eta hala segitzeko eskatu zien hitzaldian zeudenei.

Bestalde, hilabeteko lehen azoka egunean, plazan bertan elkartearen aldeko arropa bilketa eginen dela gogorarazi zuen. Arropa eman nahi dutenek

11:00etatik 13:00etara eman dezakete arropa Arakilgo udal-txearen azpiko arkupean. Aurreneko bilketa eguna astelehenean egin zen. Jende askok jai egunekin zubia hartu zuenez, inork ez zuen arroparik eraman. Hala ere, jendea galdetza hurbildu zen. Eta bakarren batek ordutegitik kanpo arropa ematekotan gelditu zen. Bakarren batek ekimenean lagundu eta ekarpen bat egin nahi badu 648 070 710 edo 620 254 230 telefono zenbakietara hots egin dezake.



Hizlaria entzuten. UTZITAKOIA

Inflazioagatik estalpe proiektuan aldaketak

Inflazioak prezioak igotzea ekarri du eta, horregatik, altzairuzko egitura izan beharrean egur laminatukoa izanen du. Gainera, sabaiko argizuloak murriztu eta haietan kristala jarri beharrean polikarbonatozko plakak jarriko dira

ALTSASU

Altsasuko Udalak Burunda frontoiaren eta Iortia kultur gunearen arteko zabalgunean estalpea eraiki nahi du. Francesca Fiorelli arkitektoaren *Hiriko zuhaitza* proiektua da gauzatuko dena. Eraikuntza lanak emateko deialdia garilean egin zuen udalak, baina Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, aurreko "esleipen prozedura hutsik geratu zen, eta, beraz, beste esleipen prozedura bat martxan jarri du". Deialdi berriak proiektuan aldaketak dakartzala jakinarazi du Ollok, eta bi nabarmendu ditu: "egitura altzairuzkoa izan beharrean egur laminatuzkoa izanen da, sabaiko argizuloen kopurua murriztu egingen da eta haietan beira beharrean polikarbonatozko plakak jarriko dira argia pasatzen uzteko". Estalpean aldaketak egiteko erabakian "azken hilabeteetan pairatzen ari garen inflazioak eragin zuzena" izan duela gaztigatu du alkateak.

Horregatik, udalak, lanak emateko deialdi berria egin du. Eraikitze lanak kalitate prezio eskaintza onena egiten duen enpresari emanen dizkio. Aurreneko deialdian bezala, oraingoan ere 473.769,24 eurotan (BEZ kanpo) eman nahi ditu lanak udalak. Aurrekontu horretatik Nafarroako Gobernuak 300.000 euro ordainduko ditu eta udalak gainontzekoa. Foru administrazioaren dirulaguntza jasotzeko hitzarmenaren baldintzetako bat zen lanak abenduaren 12rako despedituta egon behar zirela. Udalaren eta gobernuaren arte-



Iortia kultur guneko zabalgunean eraikiko dute estalpea.

AURRENEKO DEIALDIA HUTSIK GELDITU ONDOREN, BIGARRENA KOPURU BERAGATIK EGIN DU UDALAK

ko hitzarmena berritu da eta, horren arabera, lanak 2022an hasi eta 2023ko garilaren 1erako despedituta egon beharko dute. "Hori posible izan da Nafarroako Parlamentuak joan den irailean onartu zuen Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen aldaketa baten ondorioz", azaldu du Ollok. Lanak hartzen dituen enpresak estalpea egiteko 105 egun izanen ditu, hau da, hiru hilabete eta erdi. Lanak egiten interesa duten enpresek beraien eskaintzak aurkezteko azaroaren 14ko 23:59an arteko epea dute.

Aurrekontu aldaketak

Altsasuko Udalak hainbat lan egiteko aurrekontu aldaketak egitea erabaki zuen asteazkeneko bilkuran. Batetik, Altsasuko Udalak erabaki zuen Zumalakarregi plazako haur parkea estaltzea eta, horretarako, 75.300,00 euroko aurrekontu aldaketa onartuko zuen. Ollok argitu duenez, "olanazko estalpe bat jarriko da. Asmoa da aurten lanak ematea eta 2023. urtearen hasieran bukatu ahal izatea".

Bestetik, Garbitoki udal erakinean ur ihes batek hainbat kalte sortu zituen duela hilabete batzuk. Alkateak azaldu duenez, "gimnasioko tatamiak berritu eta galdara konponduko ditu udalak". Horrek 10.000 euroko aurrekontua du. 7.472,4 euro aseguruak ordainduko du eta, gainontzekoa, 2.527,6 euroak udalaren diruzaintzako gerakinarekin.



Irurtzongo saihebidetako lanak oso aurreratuta daude. ARTXIBOA

Saihebidetako lanak geldirik lanak hartu dituen enpresagatik

Eskuz aldatu eta lanak gelditu dira. Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko ditu egiteko falta direnak

IRURTZUN

Irurtzundarren aspaldiko eskaera bat gauzatzen ikusi zuten martxoaren 7an: Construcciones Boreste SA eraikuntza enpresako langileak hain desiratua den saihebidetako lanak egiten hasi ziren. Lanak lastailerako despeditzea aurreikusten zen. Baina jabeak enpresa saldu egin du eta zuzendaritza berriak langileak kaleratu ditu, eta lanak gelditu dira. "Eskerrak lanen akaberan gertatu dela", esan du Aitor Larraza Carrera alkateak. Argitu duenez, "enpresa ez da Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri. Horregatik, foru administrazioak lanak emateko kontratua hutsaldu edo baliogabetu du". Larrazak argitu duenez, "falta diren lanak Nafarroako Gobernuak errepide mantentze zerbitzuaren bidez egiten ditu". Alkateak gaztigatu duenez, oinezkoendako arriskua duten tokiak daude. "Aurreratu du ere gobernuarekin egoera aztertzeke bilduko dela.

Aldarrikapena

Aralar eta Lizarra kaleen artean 300 metro luze eta zazpi metro zabal dituen errepidea da Irurtzongo saihebidetako, industrial-

dearen gainean egin dena. Herriaren aldeko galtzadaren zatian oinezkoendako bi metro zabaleko espaloia egin da luzera guztian. Saihebidetaren bi muturretan errotonda banak bideratuko dute trafikoa bidegurutzetean. Saihebidetaren aurrekontua 1.124.594,98 eurokoa da. Lanak despedituta, Irurtzun erditik pasatzeari utzi-ko diote makina bat autok eta kamioik.

Irurtzundarren beste eskaera historikoa da A-15 autopistara sartzeko adar bat egitea Iruñerako noranzkoan. Lan horiek heldu den urtean egingen dira. Izurdiagako San Joan auzotik saihebidetako gora egiten du trenbide gainetik pasatzeko. Aldapa bukatzen den lekuan, Txokoton, Arraizagako bidea hartzeko irteera bat du saihebidetako, han egingen dute biribilgunea. Handik ekialderantz, autopistarantz doan errepide berri bat aterako da. Autopistarekin bat egin arte 915 bat metroko luzera izanen du.

Bitartean udalak herrian mugikortasun plana egiteko prozesua martxan jarri du. Hainbat eragilek eta kaltetuk planaren zirriborroa egingen dute eta, ondoren, parte hartze prozesu baten bidez onduko dena.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



Kulturarteko elkarbizitzak badu diagnostia

Irurtzango Udalak, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak, Oinarrizko Gizarte zerbitzuak, NUPek, Nafarroako Gobernuak eta irurtzundarrek elkarlanean kulturarteko elkarbizitzaren inguruko diagnostia egin dute

IRURTZUN

Irailaren 30ean aurkeztu zuten kultur etxean. Irurtzango Udaleko zinegotzi Ana Balda San Juanek aitortu duenez, jendea diagnostiaz ahaztuta egonen zela pentsatzen zuten, "baina herriko jende pila bat agertu zen aurkezpenera. Diagnostiak benetan interesa sortu du". Izan ere, diagnostikoa egiteak luze jo du, urtea. Joan den urteko maiatzean sortu zen diagnostiarenekin talde motorra. Ondoren etorri ziren inkestak, talde dinamikak, datuak jaso, idatzi... irailean aurkezpena egin zen arte. Irurtzango Udaleko zinegotzi Ana Balda San Juanek prozesu osoan parte hartu du.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak eta Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak bazekiten kulturarteko elkarbizitzari buruzko ikerketak egiten ari zirela Nafarroako beste herrietan edota Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan. "Irurtzunen orain jatorriz kanpokoak diren familia asko daude" eta horren jakitun, bi erakundeek Irurtzango Udalarari halako diagnostia egitea proposatu zioten, "herrian orain nola bizi garen jakiteko oso interesgarria izanen zelako, irurtzundarren artean zer harreman klase dauden jakiteko", azaldu du Baldak.

Diagnostiaz

Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako Departamentuaren dirulaguntza (14.000 euro; udalak 3.000 euro jarri zituen itzultzaile kontratatze) eskuratu zuten udalak, zerbitzuak eta oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateak. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko Saila herrialdeko hainbat herritan halako diagnostiak egin izan ditu. "Eskarmentu handia dutelako eta Altsasuko institutuan beste diag-



Diagnostiarenekin aurkezpenaren kultur etxea bete egin zen. UTZITAKOIA

"IKUSTEN EZ GENITUEN GAUZAK AZALARAZI DITU. ALDATZEKO PAUSOAK EMAN BEHAR DIRA"

nosi bat egiten ari zirelako", hari eskaini zioten lana egitea.

Diagnostia ezagututa, Baldaren iritziz, "gutxi gorabehera, jendea ongi bizi da herrian. Baina bakoitzak bere ingurukoekin elkarbizitzaren da. Hau da, jatorriz kanpokoak direnak beraien artean egoten dira, hemen jaio garenok, gure artean". Zerk harritu zuen azaldu du Baldak: "jendea Irurtzunerari iristen denean, orokorrean, lehenengo urtean oso oso pozik dago. 5 urte daramatzatenak hemen esaten dute gure herria ez dutela hain gustuko. Eta behar dira 10 urte egotea Irurtzunen berritua oso pozik daudela esateko". Gaineratu duenez, "ez du ematen gatazkarik dagoenik, baina elkarbizitzarena zenbait puntutan ez da ematen". Horregatik, zinegotziak uste duenez, "gure erronka da elkarbizitza sortzeko tresnak edo aukerak

izatea, indarrak horretan jartzea. Baina ondorio gehiago daude, oso luzea baita diagnostia".

Diagnostia "lehen pausozat" dute. Baldak jakinarazi duenez, "udalak beste aurrekontu bat du hemendik aurrerako egitekoendako". Kulturarteko elkarbizitza sustatzeko ahuleziak ikusi diren puntuetan eragin nahi dute etorkizunean, beti ere, NUPko iker-tzaileak aldamenen dituztela, "udalarendako oso garrantzitsua baita hemen bizi garen guztiok gustura egotea, noiz etorri zaren kontuan izan gabe; aukerak ematea mundu guztiari herria zer den eta herriaz gozatzeko". Hurrengo pausoa ere elkarlanean egingo dituzte. Talde motorrak jarraituko duela jakinarazi du Baldak. Han, teknikariek aparte, besteak beste, honakoak daude: Atakondoa eskola publikoa, hango guraso elkarteak, osasun etxe-gizarte zerbitzua, San Martin jubilatuen elkarteak, antzerki tailerra, elkarteak, hainbat irurtzundar, berriki etorritako pertsona pare bat... "Diagnostiak bide bat zabaldu du, ikusten ez genituen gauza batzuk azalarazi ditu. Horiek aldatzeko pausoa eman behar dira".

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Nafarroako Unibertsitate Publiko (NUP) iker-tzaile taldea diagnostia eskuan duela hurrengo pausoa prestatzen hasi da: Irurtzango kulturarteko elkarbizitza hobetzeko ekintza plana.

Aurkezpenetik gordetzeko moduko zerbitzuak zere?

Bai. Batetik, lan honetan jarraitzeko beharra eta gogoia dagoela Irurtzunen.

Zergatik halako diagnostia?

Gizartearen egoera baten berri jakiteko. Herritarren parte hartzea sustatuz egiten den prozesua da diagnostia.

Garrantzitsua da eskaera tokiko eragileek egitea?

Ezinbestekoa da. Halako prozesu bat da egoera ezagutu eta gero aldatzeko. Aldatzeko beharra herrian egon behar du.

Nola artikulatzen da parte hartzea?

Hasteko, egin behar dugunaren aurkezpen orokorra egiten dugu. Ondoren talde eragileak sortzen da; nahi duenak parte hartu dezake, baina hainbat erakunderen parte hartzea du. Migratzaileekin lan egiten dugunez, elkarrekin harago, haiengana hurbiltzen saiatzen gara. Ondoren, datuak jasotzeko hainbat teknika erabiltzen ditugu.

Zein izan da emaitza?

Zazpi ideiatan laburtu dugu. Lehendabizikoa da %93ak, orokorrean, Irurtzun bizileku lasaia eta ona dela esan zuen. Hori bai, desberdintasunak daude. Atzerrian jaiotakoek %24ak esan zuen ez zegoela oso ados edo ez zela oso gustura bizi Irurtzunen. Beste ideia bat da migrazioak aldaketak ekarri dituela. Demografian aldaketak oso nabariak dira. Azken 25 urteetan Irurtzunen biztanleen %15eko igoera izan du, 305 pertsona gehiago. Atzerrian jaiotakoak hartzen baditugu 419 dira. Gainera, atzerrian jaiotako askok hemen seme-alabak izan dituzte. Demografikoki herriari ekarpen izugarria egin diote.

Harremanak nolakoak dira?

Kultur desberdinetako pertsonen artean zer harreman zeuden aztertu nahi genuen. Ia %60ak esaten du kultur ezberdinetako taldeen artean ez dagoela batez harremanik. Hori neurri handi batean, niretako kezkarria da. Harremanik ez egotea ez da harreman txarra dagoela. Baina edozein gatazka dagoenean ez baldin badago harremanik, sekulakoa sortu daiteke. Beraz,

harreman eza hori arazo bat da. Egia da talde guztietako jendeak esaten zuela talde itxiak daudela. Atzeritarrek esaten zuten hemen kuadrillak itxiak direla. Eta bertakoek esaten zuten saiatzen zirela besteengana hurbiltzen, baina oso itxiak zirela. Orokorrean besteak itxiak direlako sentsazioa agerikoa da. Leku desberdinetan egoten dira. Esaterako, etorkinak apenas ibiltzen dira txoko eta elkarrekin. Gutxiago daude kirol guneetan, igerilekuetan eta abar. Aldiz, ehuneko askoz handiago baten erlijio zentroetan kokatzen dira. Baina, esaterako, kalea denok topo egiteko leku bat izan daiteke. Atzeritarren ekonomia egoera askotan oztopo bat da hainbat lekutan egon edo hainbat ekintza egiteko.

Gazteak?

Haien arteko harremanetan gertatzen ari dena oso puntu garrantzitsua da, zeren gazte gehienak Irurtzunen jaiotakoak dira. Gazteekin elkartu ginen eta kuadrillen irudikapen grafikoa eskatu genien. Oso-oso argi ikusten zen kuadrilla desberdinak daudela: euskal jatorriko neska-mutilenak, gaztelar kutsuko neska-mutilenak, Magreben jatorria duten mutilena. Hor neska batzuk sartzen dira. Baina haien artean oso berezita eta haien artean harreman gatazkatuak izaten ari dira. Eta Magrebeko jatorriko neska mapatik erabat desagertuta. Kezkagarria. Inork ez zituen kuadrilletan identifikatzen. Haiekin elkartu eta bi hemendik, beste batzuk ez dakit norekin elkartuta; baina lagun taldeetatik kanpo. Hori da Irurtzunen jaiotako gazteen artean dagoen harremana. Jatorria edo kultura izugarriko banaketak sortzen ari da. Horrek eragina dauka orainaldian, baina markatzen du zer gertatuko den etorkizunean. Horregatik, behar garrantzitsua da.

Zein da atera duzun hurrengo ideia?

Etsaitasun edo arazo batzuk ere ematen ari dira. Guk diagnostiarekin momentuko argazkia jasotzen dugu. Baina denboran aldatzen joan daiteke. Ikusi beharko

"PARTE HARTZE PROZESUAN SORTZEN DIREN HARREMANAK POTENTZIALTASUN HANDIA DAUKATE"



Diagnosian parte hartu zutenetako batzuk. Izaskun Andueza Imirizaldu, zutik, ezkerretik bosgarrena. UTZITAKOA

"Elkarbizitza bulkatzeko ekintza plana eginen dugu"

IZASKUN ANDUEZA IMIRIZALDU SOZIOLOGIA ETA GIZARTE LANEN IKERTZAILEA Hainbat erakunderekin eta herritarrekin elkarlanean Irurtzango kulturarteko elkarbizitzaren diagnosis egin eta irailaren 30ean aurkeztu zuten kultur etxean

litzateke gaur egun zein den egoera. Zeren datu horiek jaso genituenetik gauzak aldatu dira, eta esanen nuke ez direla hobetu. Datuak jasotzeko unean %23 esan zuen nolabaiteko gatazkak izan zituela beste kultura bateko pertsonekin. Gainera, gatazka erdiak ez ziren konpondu. Eta diskurtsoetan jaso zen jende asko oso erreata dagoela, haien artean arazoak daudela baina ez direla esaten, atzerritarrei laguntza gehiago ematen zaiela... Batzuen eta besteen aldetik mesfidantza asko jaso genituen. Gatazkei dagokionez, niretako esanguratsua da,

inkestaren barruan, etorkinen %40ak esan zuen etxebizitzetan diskriminazio ematen zela; alokatzeko prezio altuagoak eskatzen zizkietela. %27ek esan zuen kalean desberdin begiratzen edo tratatzen dituztela. %25ak lan arloko diskriminazioa aipatu zuen: lan gorrigoak edo lana izateko zailtasun gehiago zituztela atzerritarrek izateagatik. Kontuan hartzeko kontuak dira.

Zein da bosgarren ideia?

Integrazio prozesuei dagokionez, alde guztietatik nolabaiteko nahi bat dago elkarrekin egoteko, ibiltzeko eta abarrerako. Baina diskurtsoetan etengabe zatiketa: gu eta haiek. Bereizketa horiek esan nahi du oraindik lan handia dagoela egiteko. Bereizketen artean sozioekonomia egoera batzuek asko markatzen dute, esaterako, etxebizitzaren egoerak. Atzerritarren %67 alokairuan bizi da, estatuan jaiotakoekin artean, berriz, %85ek bere etxebizitza dauka. Eta gauza bera okupazioari dagokionez: estatukoekin artean ia %60 lanean eta atzerritarren artean 30 puntu gutxiago. Egoera sozioekonomikoek asko markatzen du eta horrek, neurri handi batean, baldintzatzen du integrazioa.

Zein da hurrengo ideia?

Atakondoa eskola publikoa espazio integratzailea dela. Irurtzango biztanle guztiei galdetuta, ia %88ek iritzi positibo bat zeukan eskolan dagoen aniztasunaren inguruan, aberatsa dela. Atzerritarren kasuan, esaterako, diskurtsoak oso argiak ziren, batzuek esaten zuten: benetan atzerritarra sentitzen ez naizen leku bakarretakoa da eskola, arreta asko jasotzen dutela, laguntzak ... Iritzi orokorra oso positiboa da.

Eta azkeneko ideia zein da?

Zer aukera eta zer prestutasuna daukan jendeak horrelako proze-

su batean aritzeko. Berez, normalean, etorkinen parte hartzea askoz baxuagoa da denetan, bai elkarrekin baita Irurtzunen egiten diren ekintzetan. Jaso genituen datuek oso desberdinak dira. Jendeari galdetu genion prest egonen litzatekeen kulturartekotasuna bultzatzeko edo horrelako prozesu batean aritzeko eta %80ak interes handia edo interesa badu horrelako proiektu batean parte hartzeko. Eta etorkinen artean kasik %60ra igo zen. Herriak gai horretan interesa du. Baina interesaz aparte behar izugarria duela uste dut.

Aurrera egiteko, ekintza plana?

Guztira 407 pertsonak parte hartu dute (281 inkestak erantzuten). Diagnosiak emaitza batzuk utzi ditu, baina prozesu bat ere. Hemendik aurrera ekintza plana eginen da. Espero dugu jendeekin, topagune horien bidez, elkarbizitza sustatzen jarraitzea. Eta hori oso oso garrantzitsua den zerbait da. Paperean gelditzen den hori hor dago, baina sortzen diren harremanak, potentzialtasun handia daukate.

Zazpi ideien gainean ariko zarete?

Talde eragilea elkartu behar da. Baina gure asmoa da hiruzpalau batzorde sortzea gai zehatzen inguruan pentsatu eta erabakiak hartzeko. Pentsatzen dut eskola eta Hezkuntza bat izan direla. Agian beste bat kultura eta euskara. Beste bat zerbitzuen inguruan... Hori buruan duguna da, baina ea zer zehazten den.

Zeinek kudeatuko du egitear den ekintza plana?

NUPe kook. Guk proposatuko ditugu gauzak. Baina orain arte egin dugun bezala, asmoa da parte hartzeari ateak zabaltzea.

Egutegirik baduzue?

Barne bilerekin hasi gara. Kanpora begira azaroan hasiko gara. Datarik ez daukagu.

BiL TOKi
TABERNA • JATETXEA

Eguneko
menua 11 €

Menu
berezia 15 €

948 562 348 - Altsasu

kaxeta
LIBURUDEGONA

Inprimagailuetarako
kartutxoak

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

PORTUKO
okidenaia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

KOLABORAZIOA

To! ta No! Sakanan

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Zenbat herritan aditzen da dagoeneko zerbait eskaintzerakoan: *Josu, to! Josune, no!* Gizona edo emakumea dela hartzailea ezberdindurik. Eta bestela ere, ezberdintasuna markatu gabe: *Amets, tori(zu)!* Elkarrizketako bi erregistroak: toka/noka edo arrunta.

Sakanako bi muturretan galdu da dagoeneko mendeetan eta mendeetan irau duen hizkera eta gaur egun soilik Arruazuren eta Urdiainen arteko eremuak eusten dio bertako betiko hizkerari, egia bada ere azken hau (Bakaikuko adin handiko zenbait hiztunekin batera) irla moduan ageri dela Burundan, horko hizkeraren lekuko bezala.

Are larriagoa da egoera gure hizkeraren ikurretako bat den hikako erabilerari erreparatuz gero, hirurogei urtetik beherako hiztunen artean galduta baita hein handi batean behintzat. Zenbait herritan konturatu dira egoera larri horretaz eta bertako hizkeraren hikako tratamendua berreskuratzen saiatzeari ekin diote eta artikulu hau horiendako mesedegarri izatea espero dut.

Hasteko esanen dut ez direla nahastu behar hitanoa eta alokutiboa, nahiz eta biak ala biak erabat loturik egon.

• Hitanoa (hika) zutanoarekin (zuka) kontrajartzen da, hau da, zu-zuk-zuri erabili beharrean hi-hik-hiri erabiltzean datza hitanoa: *Zu berandu etorri zara* (zuka); *Hi berandu etorri haiz* (hika) Eta ezin dira biak nahasi elkarrizketa edo, gutxienez, esaldi edo diskurtso berean: **Berandu etorri da* (neutroa) *eta hi haserretu haiz* (hika) (erabilerak okerra) *Berandu etorri dun/duk* (alokutiboa) *eta hi haserretu haiz* (hika) / *Berandu etorri da* (neutroa) *eta zu haserretu zara* (zuka, neutroa) (erabilerak zuzenak)

Adizki alokutiboaren osatzea: **da** (hura) + **-n** (emakumezkoa) / **-k** (gizonezkoa) = **dun/duk**.

Esaldi konposatuetan loturik daude hitanoa eta alokutiboa, ezen lehena baliatzen bada, adizki alokutiboak agertu behar dira diskurtso horretan, erregistro neutroa beharrean.

• Alokutiboek, nor-nori-nork pertsonen marka edo morfemez gain, entzulearen edo elkarrizketakidearen marka ere daramate.

batua	ORAIN	batua	LEHEN
nauk/ naun	<i>nauk/naun</i> (Altsasu, Urdiain, Ihabar, Urritzola)	ninduan/ nindunan	<i>nituken/nitunen</i> (Altsasu)
(ni)	<i>n(i)ok/n(i)on</i> (Bakaiku, Etxarri, Arbizu, Ergoiena, Lakuntza, Arruazu, Uharte, Irañeta)	(ni)	<i>nitzaken/nitzanen</i> (Urdiain, Bakaiku)
(naiz)		(nintzen)	<i>nittuban/nittunan</i> (Etxarri)
			<i>nittu(b)en/nittunen</i> (Unanu, Arruazu, Uharte)
			<i>nien/niñen</i> (Lizarraga, Dorrao)
			<i>nittuen/nionen</i> (Arbizu)
			<i>nioben/nionen</i> (Lakuntza)
			<i>niken/niñen</i> (Irañeta)

Adizkiak norekin ari garen hizketan jasotzen du, elkarrizketakidea emakumezkoa edo gizonezkoa den ezberdinduz. Ondorengo adibideak etxarrierakoak dira.

Ondorengo esaldietako bigarrenak eta laugarrenak gizonezkoarekin hizketan ari dela (horregatik esaldi hasieran Pello gizon izena, erreferentzia moduan) adierazten dute:

Pello! Jonek gosaye ekar dau (Jonek gosaria ekarri du) Erregistro neutroa, oraina.

Pello! Jonek gosaye ekar dik (...ekarri dik) Erregistro alokutibo oraina.

Pello! Jonek gosaye ekar zeen atzo (...ekarri zuen atzo) Erregistro neutroa, iragana.

Pello! Jonek gosaye ekar ziyan atzo (...ekarri zian atzo) Alokutibo iragana.

Eta hurrengoetako bigarrenak eta laugarrenak ere emakumezkoarekin (horregatik hasieran, Miren emakume izena, erreferentzia moduan):

Miren! Josuk gosaye ekar dau (Josuk gosaria ekarri du) Erregistro neutroa.

Miren! Josuk gosaye ekar din (...ekarri din) Alokutibo oraina.

Miren! Josuk gosaye ekar zeen atzo (...ekarri zuen atzo) Erregistro neutroa, iragana.

Miren! Josuk gosaye ekar ziñan atzo (...ekarri zinan atzo) Alokutibo iragana.

Adizki alokutiboaren osatzea: **dau** ('du' hark-hura, orain) + **-k** (giz) + **-n** (emak) = **dik/din**. **zeen** ('zuen' hark-hura, lehen) + **-ya-** (giz) + **-ña-** (emak) = **ziyan/ziñan**.

Pello! Amak aittai loriat ekar doo (Amak aitari lore bat ekarri dio) Erregistro neutroa, oraina.

Pello! Amak aittai loriat ekar zioik (...ekarri zioik). Alokutibo oraina.

Pello! Amak aittai loriat ekar zoon atzo (...ekarri zion atzo) Erregistro neutroa, iragana.

Pello! Amak aittai loriat ekar zioiban atzo (...ekarri zioian atzo) Alokutibo iragana.

Miren! Aittek amai ardue ekar doo (Aitak amari ardoa ekarri dio) Erregistro neutroa.

Miren! Aittek amai ardue ekar zion (...ekarri zion) Alokutibo oraina.

Miren! Aittek amai ardue ekar zoon atzo (...ekarri zion atzo) Erregistro neutroa, iragana.

Miren! Aittek amai ardue ekar zioiban atzo (...ekarri zioian atzo) Alokutibo iragana.

Adizki alokutiboaren osatzea: **doo** ('dio' hark-hari-hura, orain) + **-k** (giz) / **-n** (emak) = **zioik/zion**

zoon ('zion' hark-hari-hura, lehen) + **-ba-** (giz) / **-na-** (emak) = **zioiban/zioiban**

Sakanako hitano-alokutiboaren ezaugarri nagusiak

Erabilerari dagokionez, bereziki lagunartean, adin beretsuko senideen artean, bikoteetan ezkondu baino lehen (bestela zuka), seme-alabekin eta jende gazteagoekin erabiltzen da. Ez da erabiltzen (salbuespenen bat edo beste kenduta) baldintzetan eta mendeko perpausetan, baina bai galde- eta harridura-perpausetan, Euskal Gramatikak kontrakoa badio ere: *Fan don?* (Joan da?), *Lizarragan?* (Etorri da?), *Etxarrin*. Salbuespena aipatu dut mendeko esaldietan ere eta horrela gertatzen da etxarrieran behintzat kausazkoetan *bait-*, ...eta direnean erabilitako menderagailuak: *Eyokela yantzun, ori beitek (dek eta) biak nei deena*. (Ez iezaio erantzun, hori baituk (duk eta) berak nahi duena). Aldiz, ez da erabiltzen *-(e)lako* morfemarekin: *Eyokela yantzun, ori dalako (ez *dekelako) biak nei deena*.

'Etorri' aditzaren erabilerak trinkoa soilik Burundako

Altsasun eta Urdiainen gertatzen da. Bakaikun eta gainerako Sakanako hizkeretan 'heldu izan' aditza baliatzen da momentuko ekintzak adierazteko bai erabilerak neutroan, bai hitano-alokutiboan: jatozik/n (zatozek/n) Altsasun eta Urdiainen; *eldu tuk/n* (zatozek/n) Bakaikun; *eldu ttuk/n* (gainerako hizkeretan).

Hizkera gehienetan **-k/-n** morfema estandarrek ageri dira orain aldiari; lehen aldiari **-ke/-ne** Burundan (Irañetan ere bai garai batean) eta **-ba/-na-** eta **-be/-ne** gainerakoetan. Bestela, ia hizkera guztietan **-ye/-ñe-** eta **-ya/-ña-**: *zakiken/nen* (zekian/nan), *ziamak/n* (zaramak/n), *ziamaban/nan* (zeramaan/nan), *zioben/nen* (zegoan/nan), *nekiyan/ñan* (nekian/nan), *niyen/ñen* (nian/nan)...

Nor-nori erako adizkietan, 'nori' lehen pertsonaren (niri) morfema estandarizatua, **-da-**, Altsasun eta Urdiainen baino ez da ageri eta bi modu ezberdinetan gainera: **-da-** Altsasun: *zaidak/zaidan*; *d/r* txandaketa edo alternantzia buruturik Urdiainen: *zairak/zairan*. Gainerako hizkeretan **-e-** dugu 'nori' lehen pertsona singularren morfema: *zikiel/n* (Etxarri), *dakiet/ñet* (Lizarraga, Dorrao), *zakiel/n* (Arruazu), *zakeek/n* (Irañeta, Ihabar duela urte batzuk), *zakiet/ñet* (Arbizu, Lakuntza), *zakik/n* (Unanu).

Burundako adizki hitano-alokutiboetan soilik ageri da **j-** (nor, hura-haiek) morfema: *jituk/jitun* (ditik/ditin, 'ditu' neutroa), *jok/jon* (zagok/zagon, 'dago' neutroa)... Bestela azken hau *diok/n* (Ergoiena), *zioik/n* (Etxarri, Arbizu, Lakuntza Arruazu).

Hemendik aurrera herri bakoitzeko aditz morfema alokutiboak ikasi behar eta behar bezala erabili.

DUELA 25 URTE...



Etxarrik liburutegia mustu zuen

Udaletxeko beheko aldetik kale Nagusiko 15. zenbakiko beheko partera lekualdatu zuen liburutegia udalak. 500 metro karratuak egokitzeko 20 milioi pezeta (120.202,4 euro) behar izan zituen. Gela orokorraz aparte, haurrena, ikus-entzunezkoena, artxiboa eta liburuazainaren bulegoa zituen. Irakurtzeko 50 toki eta 7.000 liburu eta 3.000 aldizkariko funtsa zuen. Mustutze ekitaldiko zinta Isabel Orcek eta Amaia Razkinek moztu zuten. Aurrekua, Urgain abesbatza eta txistulariak izan ziren.

"Egoerara egokitzeko apusturik ez zen egon"

ALEX AGINAGALDE LOPEZ PANTAILAK EUSKARAZ-EKO KIDEA

Euskarazko ikus-entzunezkoen aldeko ekimena da. Pantailan gure hizkuntzak duen presentzia eskasarekin kezka duten hainbat ekimenek eta herritarrek sortu dute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Euskararen alde lan egiten duten hainbat erakunde eta ekimenen artean berrienetako bat Pantailak Euskaraz da.

Pantailaz ari zaretenean, zertaz ari zarete?

Ikus-entzunezkoen zentzu zabalenean ari gara. Izan ere, pantailak gure bizitzan gero eta leku gehiago daukate. Ez soilik telebista edo zinema, baizik eta tabletak, smartphone-ak, bideo jokoak...

Zergatik egon beharko lukete euskaraz?

Soziolinguistikako ikerketek frogatzen dute gure aisialdiko bizipenek eragin zuzena daukate gure hizkuntza ohituretan. Eta, gaur egun gure aisialdia pantailari gero eta lotuagoa dago. Esandakoa, tabletak, smartphone-ak, bideo jokoak, streaming plataformak, telebista tradizionala eta zinema. Horietan guztietan euskaraz duen presentzia oso-oso txikia da. Horrek esan nahi du gure aisialdia euskara ez den hizkuntzetan bizitzen baldin badugu, horrek eragina duela geure hizkuntza ohituretan.

Geroz, helburua litzateke pantaila horiek guztiak euskalduntzea?

Duela 30 urte, 90eko hamarkadan ez zegoen pantailen iraultza hau. Telebista tradizionala zegoen



Alex Aginagalde Lopez pantailan euskaraz presentzia handitzeko lanean ari da.

bakarrak, eta han lauzpabost telebista kate zeuden eta horietatik bat euskaraz zen. Eta, gainera, marrazki bizidunen oso eskaintza oparoarekin eta abarrez. Testuinguru horretan, batez ere haur eta gazteak oso ohituta zeuden aisialdiko pantailak kontsumo hori euskaraz egitera. Zer gertatu da? 90eko hamarkada bukaeran Interneten iraultza etorri zen; Internet etxe guztietan sartu da. 2006an smartphone-ak sortu ziren, 2010ean Youtube sortu zen eta beste sare sozial batzuk. 2016an

Netflix eta ordutik hona beste streaming plataformak batzuk. Azken 20 urteetako iraultza digitaalaren erakundeentzako aldaketak ez zegoen benetako apustu estrategikorik euskara egoera berrira egokitzeko. Ondorioz, euskararen presentzia erabat diluitu egin da panorama berrian, ia-ia desagertu arte.

Nolako neurriak hartu beharko lirake euskaraz berriro ere pantailan presentzia irabazteko?

Alde batetik, streaming plataformetan, estatu mailako Ikus-entzunezko Legea zela eta, euskal-

gintzako beste eragile batzuekin eta kataluniarrekin eta galiziarrekin eragiten saiatzen arituginen. Lortu da zarata ateratzea eta legean aipamen batzuk egitea esanez plataformek ere hizkuntza gutxituei lekua egin behar dietela. Zarata guzti horren ondoren lortu da gutxienez Netflix eta Amazon Prime Video, adibidez, hastea euskaraz edukia eskaintzen. Guk uste dugu lege behartu beharko lirakekeela kuota batzuk emanaldi batzuk hizkuntza gutxituetan izateko. Azkenean Ikus-entzunezko Legeak ez du guk nahi genuen bezala jaso. Egia da hemengo erakundeek ere Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoan badutela arautzeko eta legeak egiteko ahalmena. Horregatik uste dugu hemen betebeharrak gehigarriak jarri beharko lirakekeela streaming plataformendako esate baterako.

Zerbait gehiago?

Guretako funtsezkoa erakundeek sustatzea euskarazko edukia, bai hemengo sortzaile sortutakoak, bai nazioarteko eduki arrakastatsuenak euskaratuta, bilduko dituen plataforma propio bat sortzea, euskaldunentzat erreferente izango dena. Badi-rudi EITB badabilela plataforma bat sortzen. Euskal erakundeak oso berandu iritsi dira. Katalanek, esate baterako, 2010eko hamarkadan jada www.filmin.cat webgunea sortu zuten eta hor badi-tuzte 2000 eduki katalanez. Plataforma hori oraindik ez dakigu euskarazkoa %100ean izango den, badaukagu esperantza puntu bat. Plataformak euskaraz izan beharko luke.

Plataformetaz aparte, aipatu dituzun pantaila guztietan, ezta?

Hori da. Zinemetan, esate baterako, euskararen presentzia

Euskal Herriko zinema aretoetan emanaldi guztien %1eko da. EAEko euskararen normalkuntzarako legeak eta Nafarroako Foru Dekretuak aipatzen dute erakundeek neurriak hartu behar dituztela euskara ikus-entzunezkoetan eta zinemetan sustatzeko. Aipatzen dute hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna eta begira zein urrutiko dagoen berdintasun hori zinemetan: %1 euskaraz eta %99 gazteleraz. Horretaz aparte, gazteen artean arrakasta handia duen aisialdi mota bat da bideo jokoena. Hor ere euskara sustatu beharko litzateke, eta kanpoko bideo joko arrakastatsuek euskaratzeko neurriak hartu, dirulaguntzak sortu eta estrategiak sustatu.

Herritarrok hizkuntza kontzientzia dugu pantaila baten aurrean jartzen garenean?

Azken 20 urteetan ohitu gaituzte pantailen mundu hori beste hizkuntzetan bizitzea. Ez guk nahi genuelako, baizik eta erakundeentzako aldaketak ez delako benetako apustu estrategikorik egon. Horren ondorioz, inertziak, ohituta gauden gutako asko erdaraz kontsumitu eta normaltzat hartzen. Kontzientzia galera bat bai egon da, baina herritarrei ezin zaie erru guztia bota. Azkenean, erakundeentzako faltaren ondorioz herritarrok hartu dugun ohitura bat da. Etxe askotan badaude pertsona asko saiatzen direnak aukera dagoenean euskarazko ikus-entzunezkoak hautatzen, edo haurrei beti ETB3 jartzen...

"INERTZIAZ, OHITUTA GAUDE GUTAKO ASKO ERDARAZ KONTSUMITU ETA NORMALTZAT HARTZERA"

Astebetaz soilik euskarazko ikus-entzunezkoak kontsumitu edo sortzera animatu du

Pantailak Euskarazek *Pantailaldia* antolatu du eta euskaldun komunitate osoari parte hartzeko deia luzatu dio. Aginagaldek azaldu duenez, "Euskaraldiaren testuinguruan, euskararen aldeko aktibazio sozialeko ariketa erraldoi horren sinergiak aprobetxatu nahi ditugu eta azaroaren 11tik 18ra antolatu dugu *Pantailaldia*. Astebetaz bakarrik euskarazko ikus-entzunezkoak kontsumitu edo sortzera

animatu nahi ditugu herritarrek". Ekimenak bi helburu ditu: gaineratu du. "Batetik, euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa sustatzea, eta jendearen ohituretan aldaketa sortzeko eta kontzientziak pizteko. Baina, bestalde, baita ere agerian uzteko zein muga ditugun euskaldunok geure aisialdian, pantailan, euskara soilik bizitzeko. Eta beraz, agintariei dei egiteko benetan estrategikoa dela kontu

honi adarretatik heltzea eta benetan beharrezkoak direla legeak eta arauak euskararen presentzia pantailan biderkatzeko".

Sortzera ere deitu dute. "Pantailan eduki asko sortzen ditugu, batez ere sare sozialetan. Egia da ez dugula horiek euskaraz sortzeko ohiturarik. Azkenean pantaila mundua hain dago erdaldunduta, gazteek ere uste dutela sare sozialen mundu hori ez dela euskararena. Esate baterako, UEMAK egindako azken ikerketan, beraien udalerritan nerabeek sare sozialetarako sortzen dituzten edukien

%97 gazteleraz sortzen dituzte. Hori udalerritik euskaldunetan. Horregatik, Pantailaldia bidez jendea edukia euskaraz sortzera animatu nahi dugu.

Ekimenean edozeinek parte hartu dezake. www.pantailakeuskaraz.eus/pantailaldia/ web orrian izena ematen dutenei baliabide zerranda bat bidaliko diete, astebetaz pantailan euskaraz bakarrik bizirauteko. Eskura zer dagoen jakin dezaten. Era berean, animatuko ditugu aste horretan zehar egunero, #Pantailaldia traola erabiliz, sare sozialetan norberaren esperientziak parteka daitezke.

Sakana sariak 11 hautagai ditu

Sari nagusia epaimahaiak emanen du eta aipamena herritarren botoek aukeratuko dute. Sari banaketa ekitaldia Lakuntzako kultur etxean egingen da hilaren 10ean, ostegunarekin, 18:00etan. Ekitaldi irekia da baina alde zuzenetik izena eman behar da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Heldu den ostegun jakinen da zeinek jasoko duen Sakana sari nagusia eta Sakana aipamen berezia. Aurkeztu diren 11 hautagaitzen artean aukeratuko du Sakanako Sozioekonomia Behatokiko ordezkari batek sari nagusia nori eman. Deliberazioan parte hartuko dute tokiko administrazioetako lau ordezkariak eta Sakanako Enpresen Elkarteak, Bide-lagun turismo elkarteak, Belardi ekoizleen elkarteak, Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak eta **GUAIXE FUNDAZIOA**ko ordezkari banak.

Aipamen berezia, berriz, sakanadarren botoen bidez eraba-

kiko da. Horretarako, Sakanako Garapen Agentziaren web orrian sartu (<https://labureus/50aBq>) eta hautagaitzaren baten aldeko botoa eman beharko dute. Horretarako epea asteartean desedituko da.

Hirugarren edizioa

Sakana sariak 2020an sortu ziren. "Sakana bizi, elkartu eta anitza" helburu duten egitasmo kolektiboek aitortza egin nahi diete sariek. Haiek banatzerakoan hiru balio kontuan izaten dira. Batetik, dinamismoa eta erresilientzia gaitasuna oraingo eta etorkizuneko eronkei aurre egiteko. Bes-

tetik, aniztasuna aberastasun kolektibo gisa ikusia. Eta, azkenik, elkartasuna eta onura komuna bilatzea komunitatearen beharrak lehenetsiz. Horretarako funtsezko elementuak dira komunitatearen lana (auzolana) eta herri ondasunak (komunala).

Sariketaren aurreneko edizioa pandemia betean egin zen, eta saria babes materiala sortu zuten jostun eta maker taldeek jaso zuten. Joan den urtean estreinakoz sari nagusia eta aipamena banatu ziren. Aurrenekoa Arakilgo hazien sareak jaso zuen. Atzena, berriz, Biak Bat elkarteak.

Hautagaiak



SAKANAKO HERRI ESKOLAK

Irurtzun, Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranz, Iturmendi, Urdiain, Altsasu eta Olatzagutiko ikastetxe publikoek osatzen dute Sakanako Herri Eskolak. Haien leloa *Sakana bizi, elkartu eta anitza da*. Hainbat ekimen egin dituzte azken urteetan, esaterako, Sakanako ondarea ikasle eta irakasleei iristarazteko ekimenetan parte hartu dute.



JOSEFINA ARREGI KLINIKAREN ZERBITZUA

Suspertze funtzional eta kognitiboko etxez etxe zerbitzu geriatrikoak Sakanan. Zerbitzu horren bidez, klinikara joan ezin duten eta osasun arazoak dituzten adineko pertsonen haiei etxean bertan zerbitzua eskaintzen diete klinikako profesionalak (fisioterapeuta eta okupazio terapiako teknikaria). Helburua adinekoek eguneroko jardura normalizatu berreskuratzea da. Zerbitzua 2021eko hasieran jarri zen martxan eta ordutik 1.250 esku hartze baino gehiago egin dira eta bi lanpostu egonkor sortu dira.



AIAUPENARIK EUSKARA TALDEA

Lakuntzan euskararen sustapenean lan egiten duen taldeak hiru hamar-kadako jarduna du. Taldea duela 18 urte desagertu bazen ere, taldetxo bat euskararen aldeko ekimenak herrian antolatzen segitu du. Eta 2021ean herriko euskalkiaren erabilera txikia zela ikusi eta kezka zuten lakuntzarrek euskara taldea, atzera ere, martxan jarri zuten. Ordutik euskara taldeak hainbat ekimen antolatu ditu. Herrian euskalkiaren eta euskararen inguruan dauden bi taldeak eta Aiaupenarik taldea formalki osatzeko bidea hartu dute. Ateak edonorendako zabalik dituzte.



LAKUNTZAKO UDALAREN INKLUSIO FESTAK

Lakuntzako Udalak, ANFAS elkartearekin batera, herriko festak inklusiboak izateko proiektua jarri du martxan aurtengo festetan. Desgaitasuna edota garapenean nahasmenduak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko, hainbat egokitzapen egin zituzten, festetan besteok bezala gozatu eta parte har zezaten. Izan ere, zenbaiten kasuan, festetako zarata, argiak, jende pilaketak eta abar oztopoa dira festez gozatzeko. Horregatik, lasaitasun eta deskone-xio gunea zabaldu eta barraketan eta puzgarrien gunean inklusio gune batzuk moldatuko ziren eta horiek kudeatzeko arduradunak jarri zituzten.



ZIORDI RUNNING

Lau ziordiarrek herrian Ziordia running lasterketa antolatu zuten 2014an. Ordutik proiektua kirola eta elkartasuna uztartzen ditu. Horren ondorioz, geroz eta ezagunagoa da Estatuan eta lasterketan 500 lagun inguruk parte hartzen dute. Hainbat gaitzi eta gaixoen kasu jakinei ikusgarritasuna emateko eta laguntzeko balio du lasterketak. Baita izen emateak ere. Izan ere, elikagaiak eman behar dira. Horiek Paris 365 jantokiari ematen dizkio taldeak, dagoeneko 1.500 kilo dira.



OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO PLATAFORMA

Herritarrek osatutako plataformak osasun etxeetan gaur egun bizi den egoera salatzeko ekimenak antolatu ditu. Haien bidez gaur egun lehen arretako osasun zerbitzuan dagoen egoera larria salatu du. Horrekin batera, guztiendako osasun sistema publiko eta kalitatezkoa aldarrikatu du. Plataformak bere lanarekin zerbitzu publikoek eskualdeko bizitzan duten garrantzia mahai gainean jartzen du.



HAIZE BERRIAK BANDA

Sakanako musika banda ibarreko bost musika eskoletan hezitako musikariekin osatutako musika elkarte da. Bere jarduera ibarreko herri eta kontzeju guztietan garatzen da, hainbat elkarterekin elkarlanean. Ibarreko berezko musika folklorikoa eta herrikoia berreskuratu, kontserbatu eta zabaldu egiten du. Bestalde, Sakana osoko kohesio soziokulturalerako tresna aktiboa izan nahi du. Aurten bandak 25 urte bere ditu.



TRIKU TRAIL

Etxarri Aranazko mendi lasterketako antolakuntzak Sakana mundura zabaltzeko lan egiten du. Baita Triku Trail munduari Sakanarako gonbidapena egiteko. Herritik sortu eta herria ardatz, Sakana ibar erakargarriago bat eraiki asmoz, auzolana oinarritzat hartuz, lasterketen erdigunean Sakana ezagutaraztea du helburu. Horretarako, lasterketaren bidez, bisitarien esku jartzen dute garena eta daukaguna: basoa eta natura, ondarea eta kultura, haritzak eta trikuharriak.



ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK

Mendizale elkarte altsasuarra azken urteetan lan handia egiten ari da. Aurtengo ekimenak aipagarriak dira: Bargagaingo igoera, Hiru Mendizerrak mendi martxa, Txamantxoiako igoera Josefina Arregi Klinikarekin elkarlanean eta Altsasuko azokako argazki rallya. Horiekin batera, Euskal Mendizaleatsunaren Gala antolatu zuen. Ekitaldi horrek oihartzun handia izan du eta Sakanako irudia proiektatzeko balio izan zuen, mendizaleatsunari eta naturarekiko errespetuan egindako aisialdi eta kirol jarduerari lotuta.



BAKAIKUARROK HERRI KOOPERATIBA

Gizarte ekimeneko herri kooperatiba sortu dute 140 bat bakaikuarrek, herriko elkarteek eta erakundeek. Helburua herritarrei zerbitzuak eskaintzea da, herriko bizia dinamizatuz, lanpostuak sortuz eta abar. Zerbitzu horietan lehena herriko denda lastailean martxan jartzea izan da, Bakaikuko Udalaren laguntzari esker. Gainera, denda irekitzeak inguruko bi pertsona kontratatzea ekarri du. Etorkizunean, dendaren aktibitateak egonkortu ahala, bestelako zerbitzuak eta ekimenak martxan jartzeko aukera izango da: energia, zaintzak, edo bestelako beharrei erantzuteko.



LOS DEL RAYO

Altsasuko musika taldeak rocka egin du hasieratik, hitzen eta musikaren kalitatea zainduz, maila altuko musikariak baitira. Beraiek konposatzen dituzte beren musika lanak eta hitzak. Letren aldetik gaztetasunaren indarra beti erakusten dute, pertsonen eta giza taldeen aldarrikapenak plazaratu eta elkartasuna nahiz bestelako giza sentimenduak oso presente dituzte. Gazte, musikazale eta hard-rock jarraitzaileengandik oso hurbileko jarrera izaten dute beti. Lanean segitzen dute eta haien ibilbide luze eta oparoan Altsasuren izena edonora eraman dute.

bertako
igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz ourrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

"DBHko eraikina hobetu nahi dugu"

IÑIGO ETA IZAKUN ANDRA MARI IKASTOLAKO ZUZENDARI ETA LEHENDAKARI ORDEA Nafarroa Oinez 2023 ospakizuna antolatzeaz Andra Mari ikastola arduratuko da. Bakarka antolatzen duen laugarren aldia izanen da. Festa aurkezteko garaia iritsi da

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Andra Mari Ikastolak Sakanako 14 herrietako ikasleak hartzen ditu. Hezkuntza komunitate hori 410 ikasle inguruk, 250 familia inguruk eta 56 langilek osatzen dute. Komunitatea Nafarroako Ikastolen urteroko festa antolatu hasi da dagoeneko.

Hitz gutxitan nola definituko zenukete aurretik duzuen?

Iñigo. Oso urte intentsua izanen da, eta, aldi berean, ilusionagarria. Gogo handiz hartu dugu lekukoa. Sumatzen da gure hezkuntza komunitatean gogo handiz gaudela datorkigunari aurre egiteko.

Noiz hasi zineten lanean?

Izaskun. Udaberrian egin zen batzar berezi bat, eta han izan genuen Marta Igoa Erro, Nafarroako Ikastolen Elkarteko langilea. Aurreratu zuen zer zetorkigun, nola izanen zen antolatzea... Han hasi ziren batzorde batzuk. Gurasoei dei egin zitzaion, eta gainerako komunitateari ere. Oraintxe bertan 200 pertsona pasa lanean ari dira. Horieta zenaitek dagoeneko lan handia egin dute, aurkezpenarako prest izan behar zirelako zerbait gauza.

Zenbat batzorde?

Iñ. 15 bat dira. Gutxi gorabehera Nafarroa Oinez guztietan egitura bera dago: komunikazioa,

muntaiak eta abar. Baina gurean berrikuntza bat izanen da. Altsasuko Nafarroa Oinez-en inklusibitatea eta aniztasuna landu zuen azpitalde bat egon zen. Gurean, azpitalde baino, batzorde propioa izanen da. Hain zuzen ere, gure helburuekin bat egiten duelako. Iruditzen zitzaigun inklusibitatea eta aniztasuna urte osoan islatu behar genuela eta garrantzitsua izanen dela gure Nafarroa Oinez-en.

Ospakizunak badu datarik?

Iz. Galdera ona. Horrekin bueltak ari gara. Lastailaren 15ean izan beharko litzateke, baina zubia dago eta data erabakitzeke hausnarketa prozesua egiten ari gara.

Leloa ere hausnartzen ari zarete? Edo aukeratua duzue?

Iñ. *Hotsein!* da gure leloa. Bertako euskalkian erabiltzen den hitz bat da. Zarata, burrunba esan nahi du. Baina, aldi berean, deitu edo aldarrikatu. Gure hiru helburuak leloan islatzen dira. Helburuen artean daukagu, batetik, euskara eta euskal kulturaren suspertzea. Arnasgunean gaude eta arnasguneetan gauden ikastolok ere zeregin garrantzitsua daukagu euskara suspertzen. Sakanako jendarteari hots egin nahi diogu gurekin bat egitera, euskara suspertzera, euskal kultura suspertzera, euskara erabiltzera, moteltzen ari den erabilera suspertzera. Aldi berean, gure hezkuntza proiektua, gure eredu inklusiboa, parte hartzailea, auzolanean oinarrituta, publikoa aldarrikatu nahi dugu. Eta, zentzu horretan, gure ikastolan denek daukagu tokia. Eta, azkenik, Andra Mari Ikastolak duen proiektua belaunaldiz belaunaldi transmititzea.

Eta leloari zein irudik lagunduko dio?

Iz. Lehenik hitza bera, *hotsein!* Eta ondoan harridura ikurra eta hiru marratxo. Azken horiek bozgorailu minimalista bat osa-



Izaskun Errazkin Beltza lekukoarekin eta Iñigo Orella Alzueta bozgorailuarekin.

tzen dute. Bozgorailu horretan koloreek ere garrantzia dute. Andra Mari Ikastolaren logoak dituen kolore berak hartu ditugu: berde argia, berde iluna, horia, laranja eta gorria. Horien bidez ere Iñigok aipatzen zuen aniztasun hori ere irudikatu nahi dugu. Batetik, bertakotasuna, Sakanan aurkitzen ditugun koloreak direlako eta, aldi berean, ere aniztasuna. Hori da irudia. Eta Iñigok esan duen bezala, indartu nahi dugu aldarrikapen edo hots hori. Batetik, euskara eta euskalkiak. Arnasgune batean egon arren, iruditzen zaigulako indartu behar direla. Eta, aldi berean, gure hezkuntza proiektua ere aldarrikatu nahi dugu.

Laugarren Nafarroa Oinez. Zergatik? Zertarako?

Iñ. DBHko eraikina hobetu nahi dugu. 1965ekoa da, zaharra da eta irisgarritasun eta isolamendu arazoak ditu. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonendako eraikina eroso egin nahi dugu, bai sarreran, bai barruan. Barruan igogailua jarriko dugu. Aldi berean, berogailu sistema aldatu nahi dugu, eraginkorragoa eta ekologikoa izan dadin. Eta, horrekin batera, eraikinaren isolamendua hobetu nahi dugu, gaur egungo energia beharretara egokitzeko. Aldagelak ere berritu nahi ditugu. Aurrekoa izan zen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea eraikitzeke eta oraingo Nafarroa Oinez izanen da DBHko eraikina hobetzeko.

Hura iritsi aurretik, lehenengo arropa eta denda. Non?

Iz. Iruñekoa oraingoz ez dugu erabaki, baina Etxarrikoa bai, azaroaren 11n, ostiralarekin za-

balduko da. Kale Nagusian egonen da, garai batean Marixeleren denda zegoen tokian. Jakin ahal arduetgia iragarriko dugu. Bestetik, beste gonbidapen bat luzatu nahi dugu. Azaroaren 26an Arbizun Nafarroa Oinez Sakanako aurkezpena egingen da. Horren arduetgia ere iragarriko dugu.

Tafallatik aholkuren bat jaso duzue?

Iñ. Gogo handiz eman ziguten lekukoa. Urte osoko lanaren ondoren nekea sumatzen zitzaion. Baina, aldi berean, beraien balantzea oso positiboa da. Eta guk ere gurean halako zerbait sentitzea nahi dugu: urte intentsua, emankorra. Sakanako gure herrietan eragiteko aukera emanen diguna. Oso urte berezia izanen da norberaren ikuspegitik: ikasleenetik, familienetik, langileenetik. Hauspo moduan baliatu nahi dugu, gurean euskara biziago egon dadin.

Hasi zarete dermioetatik barna paseatzen?

Iz. Udaberrian sortu ziren batzordeen artean ibilbideaz arduratu behar dena ere martxan jarri zen. Buruan zenbait aukera daude, baina oraindik erabakia hartu gabe dago. Egia da, bakoitza bere batzordean eta bere ikuspegitik, buruak martxan daudela, lana ere. Garai batean Oinez eguna ospatzen zen eta azkeneko urteetan beste perspektiba bat dauka, urte guztikoa.

"NAFARROA OINEZ HAUSPO MODUAN BALIATU NAHI DUGU, GUREAN EUSKARA BIZIAGO EGON DADIN"

HIZKETAN

BELEIXE IRRATIAREN
ELKARRIZKETA GUZTIAK:
WWW.GUAIXE.EUS

107.3 FM
beleixe

FUTBOL PREFERENTEA

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Valle de Egües - Altsasu	2-3
Etxarri Aranatz - Aibares	2-4
Doneztebe - Lagun Artea	4-1

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Beti Casedano	18
5 Altsasu	14
13 Etxarri Aranatz	9
17 Lagun Artea	3

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATA, AZAROAK 5	
15:45 Altsasu - Doneztebe (<i>Dantzaleku</i>)	
IGANDEA, AZAROAK 6	
16:00 Lagun A. - Arrotxapea (<i>Zelai Berri</i>)	
18:00 Amigo - Etxarri (<i>Amigo</i>)	

Altsasuk Doneztebe hartuko du
Lagun Artea irabaztetik datorren Doneztebe hartuko du Altsasuk. Altsasuarrek garaipen boladari eutsi nahi diote.

Etxarrik partida zaila du aurretik
Aibarésen kontrako porrota ahaztu nahi du Etxarrik, sailkapenean hirugarren den Amigoren kontra. Partida zaila.

Lagun Artea, zulotik ateratzea
Lagun Artea puntuak bildu beharrean dago. Lakuntzarrek Arrotxapea hartuko dute, eta garaipenagatik borrokatuko dira.

PREFERENTEA EMAK.

ATZERATUTAKO PARTIDA	
Altsasu - Marcilla Aurora	3-2

SAILKAPENA	
EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA	
1 Mutilbera	15
6 Altsasu	9

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATA, AZAROAK 5	
17:45 Burladés - Altsasu (<i>Ripagaina</i>)	

Beste garaipen bat Altsasurendako
Azken garaipenarekin animatuta, Burladésen kontra gogoz ariko da Altsasu.

FUTBOL ERREGIONALA

7. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Altsasu B - Beti Onak B	0-1

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA	
1 Beti Onak B	19
9 Altsasu	7

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATA, AZAROAK 5	
15:30 Berriozar - Altsasu B (<i>Berriozar</i>)	

Eta orain Berriozar
Beti Onak liderraren kontra galduta ondoren, Altsasuk Berriozar laugarrena du aurkari.

Ezkurdia vs Etxeberria, lagun minak etsai

PILOTA Lau eta Erdiko finala jokatu ahal izateko azken pausoa falta zaio Joseba Ezkurdiari, larunbatean Labriten Peio Etxeberria gainditzea. Arbizuarra da faborito baina ez da fio. Promesetan, egungo txapelkun Joanés Bakaikoa finalerdietan erori zen

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU
Lau eta Erdiko Txapelketa azken txanpara heldu da. Asteburuan finalerdiak jokatu dira. Joseba Ezkurdiak Peio Etxeberria izango du aurkari eta Jokin Altunak Aitor Elordi. Katedrak argi du Ezkurdia eta Altuna direla faborito, baina Elordi sorpresa ematen jarraitzeko prest dago-final laurdenetako ligaxkan Ezkurdia eta Laso mendean hartu zituen- eta Ezkurdia ez da Peio Etxeberriarekin fio. Eta ongi egiten du.

Ezkurdiak eta Etxeberriak asteazkenean aukeratu zuten materiala, Labriten. "Bere pilotak nireak baino gehiago gustatu zaizkit" azaldu zuen Etxeberriak. Hortaz, materialarekin ez dago kezarik. Biak lagun minak dira, Ezkurdiak Lasori final laurdena irabazi bezain pronto aitortu zuen bezala. "Bizitzak eman dizkidan lagunaren artean, onenetako bat da Peio. Oso berezia izango da haren kontra jokatzeko".

PILOTA Etxarren, Nafarroako Jubenilen Lau eta Erdiko egoitza

Azaroaren leian, Domu Santu egunean hasi zen Nafarroako Jubenilen Lau eta Erdiko Txapelketa, Guillermo Mazo Memoriala, Etxarrengo Aranburu pilotalekuan. Ohi bezala, Etxarrenek txapelketako egoitza nagusia izaten jarraituko du, Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuarekin batera. Aurten 11 pilota klubetako 32 pilotarik hartuko dute parte txapelketan. Aste honetan bi jardunaldi jokatu ziren eta horietako batean Markinak (Irurtzun) 4 eta 18 galdu zuen Navaroren (Larraun) kontra. Astero Nafarroako jubenilen Lau eta Erdiko bi jardunaldi jokatu dira eta final handia abenduaren 3an izango da, Labriten.



Ezkurdiak eta Etxeberriak ez zuten materialaren inguruko kezarik izan. JESUS CASO

Euren arteko harreman ona ere agerikoa izan zen pilota aukeraketan, baina nolabaiteko tentsioa ere antzematen zen. Izan ere, jokoan dagoena handia da oso, azaroaren 20an Bilbon Lau eta Erdiko finala jokatzeko. Ezkurdiak

bere hirugarren txapela lortu nahi du, eta bere lehen finala jokatu nahi du Etxeberriak.

Peio Etxeberria bigarrenez ariko da finalerdietan, eta horrek "mesede" egingo diola uste du, "badakidalako halako partida

bat jokatzeko zer den". Joseba jokuaren faborito, baina "lasai" dagoela aitortu zuen. "Galtzen badut, aurrera egingo dut; eta irabazten badut, sari ikaragarria lortuko dut. Eta saiatuko naiz lortzen. Joseba ikusgarri dago, baina nire jokoa egiten badut aukera izango dut. Ausart ariko naiz, eta partida gogortzen bada, borrokatuko naiz" nabarmendu zuen.

Ezkurdiarendako "partida zaila izango da, gogorra eta bizia. Askotan entrenatu dugu elkarrekin eta oso ondo ezagutzen dugu elkar, baina hori albo batera utzi beharra dut. Nik nire jokoa zentratu beharra dut, eta ahalik eta hobekien aritu. Jokoan dagoena oso handia delako". Peio Etxeberriak "asko" jokatzeko nabarmendu zuen, eta lau eta Erdiko nabarmenak dela. "Pilotari osoa da, eta abiadura ematen dio pilotari eta defendatzen ere badaki". Hirutan jokatu dute elkarren kontra, hirutan Arbizuarra gailendu da, baina ez da fio, "partida oso estuak" izan direlako. "Gauzak oso ondo egin beharko ditut, saketik hasita".

Bakaikoaren ezustekoa

Asteartean Promozioiko Lau eta Erdiko finalerdia jokatu zuten Joanés Bakaikoak eta Julen Egi-gurenek Berrizen. Egungo txapelkun Bakaikoa zen faborito nagusia, baina partida oso gogorrean Egi-guren gailendu zitzaion, 20 eta 22.



NAFARROAKO FEDERAZIOA

Amiano eta Zabala txapelkun

PILOTA Nafarroako Kirol Jokoen (NKJ) kadeteen eta jubenilen Nafarroako Binakako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren larunbatean Labriten, giro paregabean. Aurreko astean Adrian Azpirozek lortutako txapelketari jarraiki, Irurtzun pilota klubak uzta ona

jasotzen jarraitzen du, NKJen Kadeteen Binakako Bigarren mailako Txapelketa Irurtzun klubeko bi bikotek jokatu baitzuten, Amiano-Zabalak eta Yaben-Huarte. Amiano eta Zabala erraztasunez gailendu ziren, 3 eta 22.

"Mendian korrika zoriontsu naiz, eta hori da nire lehentasuna"

JOSE LUIS BERAZA LACALLE MENDI KORRIKALARIA

Pandemia aurretiko txispa eta sentsazioak berreskuratu dituela dio 53 urteko korrikalariak. Egunerokotasunean mendian da zoriontsu, beste edozerren gainetik



Jose Luis Beraza, Uharte Arakilgo Itsesi parkean, Beriainen magalean.

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Mendian lasterketetan aspaldiko ezaguna eta oso estimatua da Jose Luis Beraza Lacalle. 53 urterekin lasterketetan aurreneko postuetan egoten jarraitzen du Uharte Arakilgo beteranoak. Mendira korrika egitera joatea da bere pasioa, eta horrek betetzen du gehien. Ez da ohiko mendi korrikalaria, "nik beste modu batean funtzionatzen dut". Berak ez du lasterketarako entrenatzen. Mendira korrika egitera joaten denez, lasterketarako prest dago. Eta ez da filosofia berdina.

Noiz hasi zinen korrika?

2007 urtean, 38 urte nituela. Areto futboleko jokatu nuen urte luzez, Irañetako Txapel Azpikoe-kin. Areto futbola utzita, behin lankide bat etorri zitzaidan Sakanako Ibilaldia egin behar zutela eta ea animatuko ote nintzen galdezka. Eroa ote zegoen erantzun nion, baina azkenean mar-txa egin genuen, 10 ordu pasatxoan. Uharteko Arrieta anaiekin Baztanen eta Arantzan beste mendi martxa batzuk egin genituen eta tarte batzuk korrika egin genituen. Baina aitortu beharra dut mendi lasterketek guztiz harrapatu nindutela 2007an Zegama-Aizkorri ikustera joan ginenean. Kilian Jornetek lehengo aldiz irabazi zuenekoia izan zen. Emozio handia sentitu nuen, Zegama-Aizkorri ikaragarrira delako.

Korrikalari talde polita hasi zineten Uharte Arakilgo Aralar Mendian.

Jon eta Angel Arrieta, Patxiko Albeniz, Iñaki Martiarena, Juanjo Goikoetxea eta beste bizpahiru ibiltzen ginen Aralar Mendin. Gero Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala antolatua genuen, 2009 urtean, eta horrek ere gure kirolari herriaren bultzada handia eman zion. Km Bertikalak hasieratik izan zuen harrera ona, jendea oso gustura etortzen da. **Gogoan duzu zein izan zen zure lehen lasterketa?** 2008an izango zen, Berako Maratoi Erdia edo Olatzagutia-Urbasa Mendian lasterketa, agian. Bietako bat.

Hasieratik sentitu zenuen mendian lasterketa zure kirola zela?

Hasieratik oso gustuko izan nuen, gaur egun gustuko dudana bezala. Gauza bat oso argi dut: lasterketetan lehiatzea gustuko dut, baina askoz ere gehiago betetzen nau egunerokotasunean mendira korrika egitera joateak. Are gehiago esango dut: nik ez dut lasterketak prestatzeko entrenatzen. Mendian horrenbeste ibiltzen naizenez, sasoiaren nagoelako parte hartzen dut gero lasterketetan. Guztiz ezberdina da.

Berandu hasi zinen mendian lasterketetan, baina hasieratik fin ibili zinen, lehendabiziko postuetan.

Nire lehen Berako Maratoi Erdia 2 orduz azpitik egin nuen; denbora ona da hori. Adinaz ari garela, 45 urte nituela hobekun-

tza nabarmena sentitu nuen. 2013-2014an gora egin nuen nabarmen, agian nire sasoiaren onena izan zen. Uste dut atzeko urte luze horietan egindako lanaren fruitua izan zela, nik ez bainuen korrika egitera joateko moduan eta frekuentzian ez jakete orduan aldaketarik egin.

Asko zaintzen al zara?

Nik ez dut inoiz entrenatzailezik ez nutrizionistarik izan. Eta fisioterapeutara bizpahiru aldiz joan izan naiz nire bizitzan, bizkarreko arazoren batzuegatik. Honekin ez dut esan nahi entrenatzailea eta nutrizionista izatea txarra denik, baina nik ez dut behar izan eta horregatik ez noa. Normal jaten dut, nire kasa ibiltzen naiz korrika eta badirudi zerbait ongi egingo dudala, ditudan urteak eta dudana sasoiaren kontuan hartuta. Ongi nago. Gure kirolari lotutako berrikuntzen, materialen eta bestelakoen inguruan egunean egoten saiatzen naiz baina gero nik argi dut zer doakidan ongi eta zer gaizki, eta ongi doakit.

Korrikalari berezia zara.

Ez dakit berezia naizen edo ez, nik oso argi dut zeintzuk diren nire lehentasunak. Sarritan esan izan didate gutxiago entrenatuko banu lasterketa hobeak egingo nituzkeela, denbora hobeak. Nik erantzuten diet ziur aski hala izango dela, baina horrela ez nuela disfrutatzen dudana erdia ere disfrutatuko. Larunbatean

lasterketa badut, eta proba horretarako soilik asteartean eta asteazkenean entrenatu behar badut, nik hori ezin dut egin. Lasterketa bat ongi prestatzeko mendira joateari utzi behar badiot, ez dit merezi. Benetan. Lasterketa baten bezperan ez ditut 30 km egingo, jakina, baina nire ohiko ibileran ez dut pistoia asko jaisten. Argi dudana da ez diodala mendira korrika egitera joateari utzik, hori baita betetzen nauena. Eta ez naiz aldatuko (kar, kar).

Distantzia luzeetan eta laburretan, bietan ongi moldatzen zara. Distantzia luzeetan ongi ibiltzen naiz, esaterako Leitzako Euskal Herriko Erronka Ultra Traillean (68 km) bi aldiz laugarren sailkatu izan naiz, azkena 2019an, Euskadiko Txapelketa zenean.

"LASTERKETETARAKO EZ DUT ENTRENATZEN; KORRIKA ASKO EGITEN DUDALAKO NAGO PREST"

"LASTERKETA BAT ONGI PRESTATZEKO ATSEDEN HARTU ETA MENDIRA JOATEARI UTZI? EZ DIT MEREZI"

Baina distantzia luzeak ez ditut bereziki gustuko. Zazpi ordu ingurukoak dira eta ongi aritzen naiz, baina lauzpabost ordu pasa ondoren, errendimendua pixka bat jaitsi ondoren geratzen zai-zun sentsazio hori ez dut oso gustuko, eta aspertu ere egiten naiz. Horrenbeste ordu, gogaitu egiten nau. Niri gehien gustatzen zaizkidan distantziak maratoi erdiaren eta maratoiaren artekoak dira, 21 kilometrotik 42 kilometrora.

Distantzia laburrak gustuko dituzu?

Beste mota bateko lasterketak dira, eta gustura egiten ditut. Esaterako, Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorria lasterketa eroa da, gogorra, eta hala ere, tiroa bezala nabil.

Zein da gustukoena duzun lasterketa, politena?

Hori oso zaila da esatea, benetan. Hemengo probez gain Pirinioetan aritu naiz, Huescan, Katalunian, Andorran... Zein da hobia? Ba ez dakit. 2016an Montseny Ultraren (80 km) lehiatu nintzen Nafarroako selekzioarekin, eta hanka bihurrituta proba utzi behar izan nuen. 2016an bigarren izan nintzen Pirinioetako Canfranc mendi maratoiaren (43 km) eta 2018an Panticosako Valle de Tena Traillean (20 km) hirugarren sailkatu nintzen, lehen beteranoa. Pirinioetako probak ezberdinak dira, mantsoagoak eta teknikoagoak, altueran korrika egiten duzula, eta errendimenduan nabari-

tzen da. Paisaiak zoragarriak dira. Ederrenak? Ba ez dakit. Niri betidanik izugarri gustatu izan zaidan lasterketa Olatzagutia-Urbasa da. Oso polita da. Berako Maratoi Erdia lasterketa ikaragarria da, eta Camille Xtreme ere sekulako lasterketa da. Honekin esan nahi dudana da oso zaila dela lasterketa batekin geratzea. Zegama-Aizkorri ikusgarria da, plus bat du. Baina ibilbideari dagokionez politena da? Agian ez, baina Zegama-Aizkorri da. Giroa, zaleak eta mugitzen duen guztia paregabea da. Gorena.

Zenbatetan aritu zara Zegama-Aizkorri?

Bitan. Lehen aldiz 2009an, lau ordu eta hiru laurdenetan (4:45:05). Denbora hobea egin ahal nuela sentitu nuen, baina nire lehen maratoia zenez ez nuen nire burua gehiegi estutu nahi izan. Bigarrenez 2011n aritu nintzen. Sekulako beroa egin zuen, kalanbreak nabaritu nituen eta 5 ordu pasa behar izan nituen (5:22:26). Urtero eskatzen dut dortsala, baina zozketan ez naiz onuradun izan. Askok esaten didate antolakuntzarekin harremanetan jarriz gero dortsal bat emango zidatela, Euskadiko txapeldun beteranoa eta Euskadiko Kopako txapeldun absolutua izan naizela, baina ez dut faboreak eskatzen ibiltzea gustuko. Urtero izena ematen dut eta zorteak erabaki dezala.

Sariak eta trofeoak ugari zuen etxean.

Uharteko Km Bertikalean solasean egon ginenean 80-90 trofeo izango nituela aipatu nuen, eta gauean bikoteak 90 trofeo inguru zenbatu zituen. Gurasoen eta arrebaren etxean ere baditut beste batzuk. 100 inguru izango dira. Baina ez diot aparteko garrantzirik ematen. Berrero diotsut, nik mendian korrika egiten eta lasterketa batean parte hartzen disfrutatzen dut. Pandemia baino lehen harreman polita genuen lasterketetan parte hartzen genuen korrikalariak, aurrean ibiltzen ginenak. Proba bukatu, elkarrekin hitz egin, auzatean gustura egon... baina pandemiaren ondotik giro hori zertxobait galdu da, korrikalari gazte berri asko sartu direlako eta lehen geundenetatik batzuk utzi dutelako.

Horrenbesterako?

Bai, gazte berri asko dago, eta askok ez dute gero jarraikortasunik.

Urriaren 16ko Basajaun Trailean (23 km) bigarren sailkatu nintzen, Pablo Gonzalezen atzetik. Gonzalezek 21 urte ditu, nik 53 eta hirugarren sailkatu zen Alvaro Iruritik 24 urte. Pentsa gure artean dagoen alde. Ez ditut gehiegi ezagutzen, eta aurrekoekin nuen harremana sortzeko jarraikortasuna behar da. **Lortutako zein txapelketa azpimarratuko zenituzke?**

Euskadiko Bertikalen Kopako txapeldun absolutua izan naiz, Euskadiko Ultra txapeldun beteranoa, Euskadiko Proba Kombinatuen txapeldun beteranoa, Euskadiko txapeldunorde absolutua eta Euskadiko txapeldun beteranoa. Nafarroan ez naiz txapeldun absolutua izan, txapeldunordea izan naiz eta Nafarroako Kopako txapeldunordea, baina Nafarroako txapeldun beteranoa sarritan izan naiz. Beteranoen mailan 9 urte daromatat eta sei-zazpi aldiz irabazi dut Nafarroako beteranoen txapelketa.

2018an Munduko Koparako baliagarria zen Andorrako Comapedrosa Skyrace mendiko lasterketan lehen mastersa izan ziren, lorpen handia hori ere.

Kasualitatez lehiatu nintzen. Beñat Katarain lakuntzarrak deitu zidan ea bertan lehiatuko ote nintzen galdetzeko, eta ezetz erantzun nion. Munduko Kopa zela, eta animatzeko. Orduan konturatu nintzen egun horietan Andorran oporretan egongo ginela, eta han geundela aprobeztatuta izena eman nuen. Lasterketan oso ongi sentitu nintzen, eta helmugara iristerakoan jakin nuen lehen mastersa nintzela. Kilian Jornetek irabazi zuen absolutua, eta podiumean elkarrekin egon ginen. Kilian sekulakoa da, ez dago bera bezalakorik. Kitto. Beñatek esaten zidan: "Beraza, Munduko Kopan lehen mastersa zarela!". Agian lasterketara buru-belarri etorriko banintz, beste modu batera hartuko nuke, baina nik oporrak probestu nituen, besterik gabe. Betikora bueltatzen gara, nik beste modu batera funtzionatzen dut. Mendira korrika egitera joateak txispa ematen dit, lasterketetan aritzeko gaitasuna, eta horrekin nahikoa dut. Eta gorputzak eusten duen bitartean, aurrera. Oso pozik nago nire kirolak betetzen nauelako eta nire ibilbidean lortu dudan guztiarengatik eskertuta nago.



Jose Luis Beraza, Berastegiko Negu Trailean. ARTXIBOA

"BASAJAUN TRILEAN PANDEMIA AURRETIKO TXISPA ETA MAILA BERRESKURATU NUEN"

"EGUN DENBORALDIA EZ DA BUKATZEN. ARRONIZ, MALLOS RIGLOS ETA ZUBIRI DITUT AURRETIK"

Pandemiaren ondotik beheraldia sumatu al zenuen?

Fisikoki, berez, ez. Kontua da denbora asko egon nintzela lasterketetan parte hartu gabe, eta nabaritzen da. Pandemia ondoko lehen proba 2021eko Uharteko Km Bertikala izan zen. Ordutik ez nituen pandemia aurreko sentazioak guztiz berreskuratzen, txispa hura falta nuen, maila hura. Basajaun Trailera arte.

Horren ongi sentitu al zinen Galdean?

Izugarri. Txisparekin, gustura, pandemia aurretiko sasoi bete horrekin. Uda oso txarra izan da, beroarengatik, eta korrika gutxi ibili naiz. Aurtengo Km Bertikalean 49 minutuko denbora egin nuen, eta denbora ona da, are gehiago uda nola joan zen ikusita, baina ez nintzen oso gustura gelditu. Olatzagutia-Urbasa gustura aritu nintzen, eta Basajaun Trailean zer esanik ez. Hobekuntza nabaritu nuen. Bigarren izan nintzen, eta pandemia aurreko maila berreskuratu nuela sentitu nuen. "Berdin nago" etorri zitzaidan burura. Urte bukaera urteko sasoi onena da niretako. Udaberri aldera korrika asko egiten dut, asko kargatzen naiz, eta udan, beroarengatik, atsedean hori oso ongi datorkit. Ondoren, irailean bizpahiru lasterketa jokatu, motorra bezala jartzen naiz.

53 urterekin, beraz, sasoi beteaz zaude. Non egon daiteke zure muga?

Ez dakit topera iritsi naizen edo jada jaisten hasi naizen, baina horrek ez dit logurea kentzen. Etorkizunean zer etorriko den, ikusiko dugu. Ez nukeena nahi, inondik inora, lesio larriren bat izatea da. Orain arte, sekulako zortea izan dut. Bihurrituren bat izan ezik, ez naiz inoiz aste bakar bat geldirik egon lesio batengatik.

Denboraldia bukatu al duzu?

Ez, datorren asteburuan Arrozaren ariko naiz, eta abenduan Trail Mallos Riglosen eta Zubiriko Sansilvestrailean. Egun denboraldia ez da sekula bukatzen. Otsailean Berastegiko Negutria jokatu da, segidan Zestoako proba... korrika egin nahi duenak urte guztian egin dezake.

Zein da egiteke duzun ametsetako lasterketa hori?

Zintzoa banaiz, ezta bat ere. Montblac? Ez, ez nau erakartzen. Zegama-Aizkorri eginga dut, eta etxean sekulako lasterketa ederak ditugu.



NAFARROAKO KARATE FEDERAZIOA

Urra, munduko hirugarrena

KARATEA Munduko Karate Txapelketak jokatu berri dira Konyan (Japonia). Asteburuak Irañetan pasatzen dituen Josune Urra Beraza berriozardarra 21 urtez azpiko Kumite mailan lehiatu zen, 61 pisu azpian, eta lan ikusgarria egin zuen. Brontzeko domina erabakitze borrokan 6 eta 0 gailendu zitzaion egungo Europako txapelduna den Trine Fuyu Lind daniarrari.



IRURTZUNGO IRATXO ELKARTEA

Taldekako Botxa Iratxon

BOTXA Asteburuan Elkarten Arteko Botxa Txapelketa jokatu zen Irurtzongo Iratxo elkartereko botxategian. Gustura aritu ziren parte hartzaileak. Txantreako Katxitxak taldekoak gailendu ziren, Txantreako Txustak taldearen eta Berriozarko Luisen eta Cesarren aurretik. Iratxoko Mikel eta Alizia laugarren sailkatu ziren.

Roberto Martil kapitainak 17 urte bete ditu Xotan

ARETO FUTBOLA Debuta "ilusioz" oroitzen du irurtzundarrak eta orain, beterano dela, Osasuna Magna Xotak bizi duen bolada txarrari buelta ematen saiatzen murgilduta dagoela aitortu du. "Lana egitea eta hobetzea, ez dugu besterik"

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Asteburuan Roberto Martil Fernandez irurtzundarrak Xota talde nagusian debutatu zuela 17 urte bete ziren. 2005eko urriaren 31 "ilusio handiz" gogoratzen du Martilek. "Azkar Lugoren kontrako partida zen, NUP-en. Lesioak tarteko, debutatuko nuela espero nuen, eta urduritasun handia nuen. Gainera, partida oso paretsu zegoen. Atera nintzen, eta oroitzen dut pistan nengoela gola sartu genuela. Golaren ospakizuna oso gogoan dut. Oroimen polita da" azaldu du klubari egingako elkarrizketa batean.

Lanean jarraitzea

Orain beteranoa da Martil, kapitaina, eta gazteak laguntzea eta babestea da bere egiteko bat, aurtengo egoera kontuan hartuta, beharrezkoagoa. Izan ere, oraindik garaipena lortu gabe dago talde berdea, eta jaitsiera postuetan dago. Zulutik ateratzea, hori da helburua, eta bolada txar



Roberto Martil kapitain irurtzundarra, urte hauetan jantzi dituen kamisetekin. XOTA

horri buelta ematen murgilduta daude Imanol Arregiren mutilak. "Zein den konponbidea? Lanean jarraitzea eta egoeraren frustrazioa gehiago okertzea ekiditea. Taldeak joko ona duelako. Gol aukera asko sortzen ari gara, eta

kontra ez ditugu gol askorik jaso. Gauzak ongi egiten ari gara, nahiz eta garaipena ez den heltzen. Iritsiko da" dio kapitainak.

Ostiralean Levanteren kontra jokatuko du Osasuna Magnak, Paternan.

Paisaia ikusgarrietan

BTT "Zoragarria" izan da Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Barranka Txirrindularitza Taldearekin urtero antolatzen duen BTT irteera. Igandean Burgosera joan ziren irteeran parte hartu zuten txirrindulariek, eta Medina de Pomarretik Puentedeyra joan eta etorria "ikusgarria" izan zela nabarmendu dute guztiek.



BARRANKA TXIRRINDULARITZA TALDEA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 4

ALTSASU Gazte agenda.

Gozamenez programaren barruan Bingo zamenez ekimena egingen dute. **18:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.**

ETXARRI ARANATZ Azoka.

EGAK antolatutako Garagardo Azoka. **Arratsalde-gauean, gaztetxean.**

LARUNBATA 5

LAKUNTZA Leihaketa.

Aire Zabalean egindako Pintura Azkarreko txapelketa.

09:00 Izena ematea.

Udaletxean.

17:30 Lanak entregatzea.

Kultur etxean.

18:30 Sari banaketa.

Kultur etxean.

IHABAR Kantu bazkaria.

Euskal kanta bazkaria antolatu du Arakilgo Udalak.

14:30etatik aurrera, herri etxean.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Nire beldurrik maiteenak

antzezlaren emanaldia Xabier Artieda antzele txarriarrarekin.

17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Gozamenez programaren barruan Gozamenez Kutxa ekimena egingen dute.

18:00etatik 20:00etara,

Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Kontzertua.

Sakanako Berrialagunek antolatutako Pasadena taldearen kontzertua.

19:00etan, Iortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Antzerkia.

Crónico antzezlaren emanaldia.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

En los márgenes gaurretasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 4 19:00
Igandea 6 19:30

Tadeo Jones 3. La tabla esmeralda familiarreko filmaren emanaldia

Igandea 6 17:00

Viaje al paraíso gaurretasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 10 19:00
Ostirala 11 19:30

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

El Vasco zineforum filmaren emanaldia

Igandea 6 19:00

Balck is beltza II: Ainhoa

Osteguna 10 19:00

19:00etan, kultur etxea.

ETXARRI ARANATZ Azoka.

EGAK antolatutako Garagardo Azoka.

Arratsalde-gauean, gaztetxean.

IGANDEA 6

ALTSASU Mendi irteera.

Leire Arangoiti ibilbidea egingen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.

Leire Monastegira bidaia kotxe partikularretan egingen da.

08:00etan, Mendigoizaleen egoitzan (Erkuden kalea, 8).

UHARTE ARAKIL Errezitala.

Errezital poetikoa: Blanca Arrizabalaga, Alfonso Muro, David Ruiz, Ventura Ruiz eta Mikel Sanz Tirapu.

17:00etan, jubilatuen egoitzan.

OLATZAGUTIA Ikuskizuna.

Dreaming Bubble. The Bubble Show ikuskizunaren emanaldia.

17:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Azoka.

EGAK antolatutako Garagardo Azoka.

Arratsalde-gauean, gaztetxean.

IRURTZUN Kontzertua.

Folk Ametsetan zikloa: Arineketan taldearen kontzertua.

19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Euskal preso eta iheslariak etxera. **20:00etan, plazan.**

ASTELEHENA 7

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde. **12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

ALTSASU Hitzaldi-tailerra.

Cuidar a quien cuida (Zaintzailea zaintzen) hitzaldia, gaztelaniaz, antolatu du Afan Nafarroako Alzheimer eta bestelako dementzia duten pertsonen senideen elkarteak.

16:00etan, osasun etxeko erabilera anitzeko gelan.

ASTEAZKENA 9

ALTSASU Tailerra.

Kafe konpondu.

17:30etik 19:30era, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU Liburu aurkezpena.

Mari Romero idazleak *Etxetorre Goikoa. Donde no existe el olvido* liburuaren aurkezpena egingen du.

18:30ean, Iortia kultur gunean.

OSTEGUNA 10

LAKUNTZA Sari banaketa.

2022ko Sakana Sariari sari banaketa (aurretik gonbidapena hartu behar da).

18:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Liburu aurkezpena.

Izaskun Etxeberriak *Esaten ez den guztian* liburuaren aurkezpena egingen du.

18:30ean, liburutegian.

OSTIRALA 11

ALTSASU Kantu afaria.

Altsasuko Euskal Herriaren Euskarazek antolatutako Kantaita Afaria 2022 Kuxkuxturekin.

21:30ean, Kukurreka elkarteak.



OSTIRALA 4

ITURMENDI Euskaraldirako izena emateko, txapa banaketa, banderola salmenta...

18:00etatik aurrera, frontoian.

LAKUNTZA Euskaraldirako izena emateko eta txapen banaketa.

19:00etatik 21:00etara, plazan.

ALTSASU Euskaraldirako izena emateko eta txapa banaketa.

Banderolak, zapiak eta poltsak erosteko aukera izanen da, baita photocalla ere. **19:00etatik 21:00etara, Gure Etxean.**

OLATZAGUTIA

Euskaraldirako prestatzeko pintxo potea eta izena ematea.

Arratsaldez, herrian zehar.

ZIORDIA Euskaraldirako prestatzeko pintxo potea eta izena ematea.

20:00etan, elkarteak.

ETXARRI ARANATZ Mus txapelketa.

22:00etan, Leku Ona tabernan.

LARUNBATA 5

ALTSASU Euskaraldirako izena emateko eta txapa banaketa.

19:00etatik 21:00etara, San Juan plazan.

BAKAIKU Euskaraldirako txapa banaketa eta izena emateko mahaia.

19:00etatik aurrera, plazan.

OSTIRALA 11

UHARTE ARAKIL

Euskaraldirako txapak banatzeko edota izena emateko mahaia.

18:30etik 20:30era, plazan.

ARRUAZU Euskaraldirako txapen banaketa eta izena ematea.

18:30etik 20:00etara, ostatuan.

LAKUNTZA Euskaraldirako izena emateko eta txapen banaketa.

19:00etatik 21:00etara, plazan.

ALTSASU Euskaraldirako izena emateko eta txapa banaketa.

19:00etatik 21:00etara, Gure Etxean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Tokan2 la polla taldearen kontzertua.

23:00etan, Leku Ona tabernan.

HERIOTZAK

• **Beatriz Iriarte Iurrtia**, azaroaren 1ean Iurrtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

ESKELA



José Ángel Arrese Cosme

Bidea egin duzu eta bidelagun izango zaitugu betiko

Zure lagunak
Ziordia

ESKELA



Axun Larraza Huarte

Eskerrik asko biziya bizitzen ikustiatitis

Zue familiya



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

AGUR OHARRA

Alvaro Mundiñano

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZAK

Alvaro Mundiñano, margolariaz gainera, langilea zen; gazte-gaztetandik Antsoingo karrozeria tailer batean hasi zen lanean eta etxean bere soldataz laguntzen. Mexikotik itzultzean, Iruñeko beste tailer batean aritu zen gaixotasun sendaezin batek erretiratu zuen arte. Langilea izateaz gainera, iraultzailea ere izan zen eta gizarte mugimenduetan eta ezkerreko erakunde eta alderdi politikoetan parte hartu eta bere konpromisoa erakutsi zuen: klandestinitatea ezagutu zuen garai batez, eta, beste garai batean, berriz, zinegotzia izateak dakarren ardura.

Langilea eta iraultzailea izateaz gainera, artista ere bazen. Bere lanetan Sakana beti presente dago. Beriain mendia, bereziki. Sakanako larreak eta noizbait hustu ziren Arañazko herriak, Lazkoz, Maiza, Erdozia, Mundiño edo Mundiñano... Langilea, iraultzailea eta artista izateaz gainera, euskaltzale amorratua ere bazen; gaur euskarak hitzun garrantzitsu bat galdu du, euskara ahulago dago bera gabe, leku guztietan euskara zabaltzen eta indartzen saiatzen zelako.

Euskara maite zuen eta bere erakusketetan eskuorriak eta beti euskaraz zeuden, bere margoen tituluak bezala, beti euskaraz, beti euskararen alde. Langilea, iraultzailea, artista eta euskaltzalea izateaz gainera, sakandarra zen, Sakana maite zuen bihotz-bihotzez.

Mexiko bihotzean zeraman etxarriarra zen, babes bila noizbait alde egin behar izan zuen enara eta herrira itzultzean herriko kaleak, iturriak eta jendeak erretratatu zituen. Baina langilea, iraultzailea, artista, euskaltzalea eta sakandarra izateaz gainera, adiskide on bat zen, bihotz handikoa, onesta, zintzoa, jatorra, beti laguntzeko prest. Bere margoak erakutsi zituen duela justu urte bat Iruñeko Plazara elkartean, eta saldu ziren koadroak Alde Zaharraren historiari buruz auzo elkarreak egin behar zuen liburu baten argitalpenean laguntzeko egin zituen. Zertarako nahi zituen margoak etxean izan? Nahiago zuen margoak herriko jendearen eskuetan egotea.

Orain berririo joan zaigu, lehen Mexikora, orain inork ere ez daki nora, eta betetzeko oso zaila den hutsune handi bat sortu du Sakanan, Senperen, Coatzalcoalcosen, Elortzibarren eta Iruñeko Alde Zaharreko kaleetan. Nork egingo ditu orain zuk egiten zenituen gauza horiek guztiak?

Heriotza oharra argitaratzeko baldintzak

Testuak gehienez 1.900 karaktere izan behar ditu hutsuneak barne. Bat eta bakarra onartuko da, ez baitira kapituluak onartuko. Idatzi guztiak egilearen izen-abizenekin argitaratuko dira. Testuak euskaraz idatzi beharko dira. Idatziak helarazteko: gutunak@guaixe.eus.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK**ERRENTAN EMAN**

Lizarragako Azi Iturri Txokoa 2022ko San Klemente festetan alokatu nahi da: azaroaren 18, 19 eta 20an. Gutxienez 1.000 euro izanen da. Alokatu nahi duen edonor azaroak 6, igandea, eguerdiko 12:00etan elkartean ager dadila. Bat baino gehiago baldin badago, enkantea egingen da.

IKASTAROA

"Zaintzaile zaintzen" tailerra Altsasun: Nafarroako Alzheimerre eta beste alako demenzia duten pertsonen Senideen Elkarrekin (AFAN) Altsasuko Osasun Zentroan hitzaldi bat antolatuko da azaroaren 7ko 16:00etarako. Hitzaldia gaztelaniaz izango da. Sarrera dohainik da baina izena ematea beharrezkoa da. Informazio gehiago eta izen ematea 693 402 175 eta 673 585 862 telefono zenbakietan.

GALDUTAKOAK/OPATUTAKOAK**OPATUTAKOAK**

Betaurreko graduatuak opatu dira Etxarri Aranatz: Beheko basoko bidean, Arrigorrieta kalean. **BELEIXE IRRATIAN** daude.

OHARRAK

Irurtzango Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak eman ditu: Joan den urteko irailtik aurrera agorriera egindako ikastaroak hain zuzen. Baldintzak: 16 urte beteak izatea eta Irurtzunen errolatuta egotea. Udalak ikastaro mota guztiak lagunduko ditu diruz, baita udako euskarazko unibertsitate ikastaroak ere. Deialdian interesa dutenek eskaerak udalwebeko erregistroan aurkeztu beharko dituzte lastailaren 26tik azaroaren 18ra.

Etxarri Aranatzeko Kattuka haur eskolako erabiltzaileendako dirulaguntza deialdia:

Joan den ikasturtean beraien 0 eta 2 urte arteko seme-alabak Arbizuko Kattuka haur eskolan izan zuten etxarriarrek dirulaguntza eskatzeko aukera dute. Hala erabaki du Etxarri Aranazko Udalak, deialdia aurreko ikasturtean haur eskolan seme-alabak zituzten gurasoendako da. Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 20ra arte.

Etxarri Aranazko Udalak herriko entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin du: Kultur, kirol eta jendarte entitatei dirulaguntzak emateko deialdia onartu du. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2022ko lastailaren 1etik 2023ko irailaren 30era arteko epean egin beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea 2022ko abenduaren 31ko 14:00etan amaitzen da. Informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian daude.

Iturmendiko Udalak beheko basoko bidean dagoen langa giltzaz itxi zuen hilaren 18an: Basoan barna ibiltzen diren ibilgailuen mugimendua mugatu nahi du. Hala ere, basora autoz joan nahi dutenek udalwebeko giltzaren kopia bat eskatzeko aukera dute. Harengatik bi euro ordaindu beharko dute.

Emakumeen arteko sareak ehundu: A25 ekimenaren barruan Sakanako emakumeen topaketa egingo da azaroaren 27an; sortu zure oihal zatia (patchwork) eta ekarri topaketara, bertan oihal zati guztiak ehunduko ditugu. Izena eman azaroaren 22a baino lehen berdintasuna@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

Patata operazioa: Azaroaren 6an, igandearrekin, Iruñeko Alegria penak patata operazioa egingo duela jakinarazi du. Urdian eta Satrustegi artean jakiak biltzen egonen dira igandea goizean eta eguerdian. Animatu.

Arropa bilketa: Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakilgo udalaren arkupean bilketa gune bat irekitzera goaz. Hilaibete-ko lehen azoka egunean, astearteetan, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarriz Laguntza Elkarrekin duen egoitzara eramango dugu, bilketa-aren biharamunean. Ixpi-ru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

Lakuntzako jendeari Gaztetxokotik: Gaztetxokoak lakuntzarrei jakinarazi dienez, etxean erabiltzen ez dituzten eta gaztetxokotan erabiltzariak izan daitezkeen objektuak hara eramantzeko materiala, mahai jolasak, eskulanetarako materiala, etab. Gaztetxokoa Uriz kalean dago eta larumbatetan eta igandetan 16:30tik 20:00etara egoten da zabalik, orduan eramantzeko gauzak.

Bakaikuko Jubilatutako elkarteko bazkide egiteko aukera: Hiru Haintz Jubilatutako elkarteko irailaren 11n egindako bilan bere egoitzan herrian errolatuta dauden herriko jubilatutako sar daitezkeela erabaki zuen, sarrerarik ordaindu gabe. Horrekin batera bazkide berriek hileko kuotak besterik ez dituzte ordaindu beharko. Bazkide egiten interesa dutenek urte hasiera baino lehen zuzendaritzako kideekin harremanetan jar daitezke.

Aralarko taberna-jatebetea itxita: Deun Mikel Goiaingueraren Kofradiak jakinarazi duenez, heldu den astelehenean, urriak 17, azaroaren 8ra arte, Aralarko santutegi ondoko taberna oporregatik itxita egonen da. Hala ere, Aralarko santutegia egunero zabalik egonen da 10:00etatik 18:00etara, astelehenean izan ezik. Ordutegi berean, santutegi ondoko aterpea eta komunak ere zabalik egonen dira.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUSWWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Pasadena taldea kontzertuan. UTZITAKOA

Iluntasunaren edertasuna

Duela urte bat inguru Libe Garcia de Kortazar eta Jon Basaguren musikariek proiektu bat sortu zuten: Pasadena. "Aspaldi" kantak elkarrekin sortzeko gogoia zuten. Sakanako Berrialagunek lortian kontzertua ematera gonbidatu dute taldea, bihar

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU Sakanako Berrialagunek urtero kultura ekimen bat antolatzen dute, udazkenean. Egitasmoak bi helburu ditu, alde batetik, Berria lagundu -irabazi guztiak euskarazko hedabidearendako dira- eta, bestetik, euskarazko kultura Sakanan zabaldu. Aurtentzen Pasadena talde gasteiztarra izan da gonbidatua eta bihar, azaroak 5, larunbata, 19:30ean, kontzertua emanen du lortian kultur gunean.

Libe Garcia de Kortazar eta Jon Basaguren musikariak daude Pasadena proiektuaren atzean. Aurretik Libe, Izaki Gardenak eta Neubat taldeetan izandakoa da eta Izaki Gardenak taldean bigarrena. "Izaki Gardenetan elkarrekin aritu ginen eta Liberi bakarkako diskoetan abestiren bat egin nion ere. Beti geneukan ideia kantuak biok batera sor-

tzeko, hasieratik kanta bat hartu eta biok batera forma eman", azaldu du Basaguren. Momentua zela ikusi zuten: "Elkarrekin sortzen hasteko momentua izan zitekeen, eta horri ekin genion iaz". Ordutik proiektuaren izen bereko diskoa kaleratu zuten, zuzenean jotzen hasi ziren eta orain kanta berriak grabatu dituzte eta kontzertuetan jotzen hasi dira ere. Aurreko ostegunean, hain zuzen, *Zerua ireki* abestia publikatu zuten. "Gure alderdi bat bezala da. Horretan ari gara, gustura".

Elkarrekin

Aurreko proiektuekin alderatuz, Pasadenan abestiaren ideia izatetik bukaerara arte prozesu guztia elkarrekin egiten dutela da. "Aurretik abestiak sortzen nituenean zen nik ideia garatu, melodiak eta abar, eta gero tal-

dekideei aurkeztu bakoitzak bere arregloak eta abar egin zezan. Orain hasieratik ideia txiki-txiki bat izan, Liberi aurkeztu, baita alderantziz ere, eta bion artean lantzen joaten gara". Prozesu partekatua da. Batzuetan oso "ederra eta erraza" dela aitortu du musikariak, bestetan, "baduzu kanpoko norbaitek ere esaten dizuna, horrek ez diola ezer esaten". Orduan, beste batera pasatzen direla esan du Basaguren. "Sortze prozesuaren parte da, eta hori da landu behar dena ere".

PASADENA-REN KONTZERTUA IZANEN DA BIHAR, LARUNBATA, IORTIAN KULTUR GUNEAN

"Orokorrean badu puntu ilun bat. Melodiak oso borobilak sortzea gustatzen zaigu". Pasadena taldearen musikari dagokionez "oso pop doinuak" dituela azaldu du taldekideak, "klasikoak". Doinu horiek "iluntasun puntu batekin" lotzen dute. "Teklatu asko dago, sintetizadoreak, gitarra, baxua, bateria... Ahotsarekin harmoniak sortzen ditugu". Oso musikala da.

Gauza ikaragarriak

"Horrek erakartzen gaitu. Musika entzuten dugunean ere horrelakoa gustatzen zaigu. Norbaitek esaldi bat esan zuen: gauza ikaragarriak esatea doinu ederrekin". Tristura eta gauza ikaragarriak ederrak izan daitezkeela azaldu du musikariak. "Horri edertasuna bilatzea. Ze pozik nagoen eta gaur ze gustura egon garen pantanoan kantatzeak ez digu erakartzen". Nahiko "intentsoak" dira.

Azkenaldian kanta berriak lantzen ibili dira Pasadena taldeko kideak, eta zuzenekoekin eman gabe egon dira. "Aurrekoan Oñatin egon ginen eta erreperitorioa oso ondo gelditu zaigula iruditu zitzaigun". Oso gustura ibili ziren bai musikariak bai publikoak: "Jendearen erreakzioa ere ikusten dugu, eta jendea oso gustura egon zela ematen zuen". Sortu dituzten abesti berriak kontzertuetan sartu dituzte ere. Zuzenekoak emateko "oso gogotsu" daudela esan du Basaguren,

"kantuen artean oreka lortu dugu eta nola jotzen ditugun ere asmatu dugu". Oholtzaren gainean sei musikari egoten dira, "gauza asko ikusten eta entzuten dira, musika tresna desberdinak, entzuteko interresgarria iruditzen zait".

Diskoak grabatzearen "beharrak" ikusten du Basaguren: "Kanta solteak egiten eta grabatzen joan daiteke, baina niri ez dit erakartzen. Agian diskoaren seme-alabak garelako. Obra zabal bat bezala ulertzen dugu diskoa. Zerbait handia hartzen duela". Diskoaren atzean kontzeptu bat egon daitezkeela azaldu du musikariak: "Musikariaren edo talde baten garai bat erakutsi dezake ere. Artista baten perspektiba zabalago bat ematen dizu". Letrak gehiago landu daitezkeela eta haien artean harremana izan dezaketela esan du, eta horiek zuzenekoetara eraman. "Orain editatuko duguna haien artean haritxo dute".

Momentuz ez dute etorkizun "oso luzerako" planik egiten. Sortu dituzten abesti berriekin Durangoko Azokarako editatuko dituzte eta kontzertuekin jarraituko dute, tartean ekainean Azkena Rock-en emanen dutena.

"Musika bizitzeko modu bat da. Dena ziprimitzen du musikak". Eguneko 24 orduak musikarekin erlazioan duta kontuetan ibiltzen direla aitortu du, "guretzako ogibide eta bizibide bat da".

Dorretxearen hormetatik sortutako istorioa

Mari Romero idazleak 'Etxetorre Goikoa. Donde no existe el olvido' laugarren liburua kaleratu du, eta azaroaren 9an, asteazkena, lortia kultur gunean aurkeztuko du. Memoria historikoa eta homosexualitatea "garai zail horietan" dira gai nagusiak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Senarraren familiak dorretxe bat du, zahartuta zegoen, baina 1483. urtekoa da, Kolon Amerikara ailegatu baino lehenagokoa". Duela gutxi senarraren gurasoak hil ziren, "eta alaba gazteenak dorretxea berritzea erabaki zuen". Zaharberitze lanekin hasi zenean Mari Romero idazlea etxe historikoan sartu zen eta "holako paretak eta dauzkan landutako zutabeak" ikusita buhari bueltak ematen hasi zen. "Hasi nintzen pentsatzen zein pertsona biziko ziren bertan. Giltza zahar bat aurkitu nuen ere eta lagun batek informazio bilatu zuen". Aurkikuntza eta pentsamendu horietatik tiraka Etxetorre Goikoa. Donde no existe el olvido eleberria sortu du. Azaroaren 9an, asteazkena, 18:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean liburuaren aurkezpena egingo du, eta liburua Arkatz liburutegian salgai dago.

Familiaren etxedorrean oinarrituta fikziozko istorio bat sortu du Romerok. Protagonista Garaizi arkitektoa eta ekintzailea da. "Bat-batean etxedorre bat berritzea proposatzen diote eta lanarekin hasten denean bere familiarekin, bere amonarekin, zerikusia duela ikusten du eta ikertzen hasten da". Misterioa eta intriga duela azaldu du idazleak. "Ez da geldituko egia jakin arte, bere bihotzean eta buruan ahanzturarako lekurik ez duelako".

Etxetorre Goikoa donde no existe el olvido eleberrian bi gai nagusi agertzen dira: Memoria historikoa eta desagertuak eta homosexualitatea gerra zibilaren eta gerra osteko garaietan: "Bizitza zein zaila zen eta desagertuen familiak nola bizi ziren eta hori homosexualitatearekin garai zail horietan lotu dut". Eleberria, beraz, bi garaietan oinarritzen da; alde batetik, 1936ko estatu kolpearen ondorengo gerran eta gerraostean



Mari Romero idazlea liburu berriarekin. UTZITAKOA

eta, bestetik, orainaldian. "Kapitulua dihoaz garai batetik bestera. Pertsonaiak ateratzen joaten dira eta trama garatzen joaten da". Sentimenduz betetako istorioa dela esan du Romerok, "mimo handiarekin tratatzen ditut garai horiek". Romeroren familian ere desagertutako senide bat egon zela azaldu du idazleak, "amaren lehengusua zen eta 16 urterekin desagertu zen. Ez dute inoiz aurkitu".

Memoria

"Duela gutxi hil da nire aita eta Legazpin omenaldi txiki bat egin genion. Berari zor diot idazteko grina hau". Poesiak idazten zi-

"AITARI ZOR DIOT IDAZTEKO GRIN HAU, ETA AURKEZPENA BERARI OMENALDIA ERE IZANGO DA"

tuen Romeroren aitak, "eta berak ez du inoiz eduki bere momentua; horregatik Altsasuko aurkezpena ere omenaldi txiki bat izango da". Idazlearekin batera Iosu Imaz Prim Altsasu Memoria taldeko kidea egongo da ere. "La casa de la buhardilla argitaratu ondoren Altsasuko auziko gertaerak gertatu zirenean mahai inguru bat egin zuten eta bertan egon nintzen berarekin hitz egiten, harremana dugu eta ea prest dagoen esan nion". Aurkezpen lanetan Nati Botant Romeroren laguna egongo da ere.

Etxetorre Goikoa. Donde no existe el olvido eleberriaren pizgarria Olaberria senarraren familiaren etxearen berritzea izan zen, baina Romerok aitortu duenez, "batzuetan ezin dut azaldu nola ateratzen zaizkidan istorioak. Bat-batean gauza batekin hasi eta beste batera joaten naiz". Errealitatean existitzen den dorretxe batean oinarrituta dago,

baina istorioa idazlearena da; "ez du etxedorreak zeukan istorioarekin zerikusirik". Pertsonaiak fiktizioak dira, baina deskribatutako paisaiak eta ingurua Legazpikoak dira, "herriaren izena ez dut aipatzen, baina agertzen da". Donostia aipatzen da, baita Altsasuko zonalde batzuk ere, "ikerketaren barruan daudenean, besteak beste, Urbasako

Ubabako begiratokira edo Otsaportillora joaten dira".

"Euskal Herriko ohitura zahar batzuk ere atera nahi nituen; nire Euskal Herriari omenadi bat ere bada". Romero Extremaduran jaio zen, "eta asko maita dut", eta hamar urtez Altsasun bizi izan zen, "eta herri maite-maitea da ere, aurreko egunean egunpasa egon nintzen", baina galdetzen badiote legazpiarra da.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Cristobal Balenciaga

Moda etxe handien atzean diseinatzaile onenen izenak daude. Beren moda etxeen arrakastaren atzean dauden jainuak dira, marken buruan egon direnak, euren talentuaren dosi handiak injektatzeko.

Oraingoan, gertuko batez hitz egingen dugu. Cristobal Balenciaga Eizagirre Getarian jaio zen 1895. urtean, familia umil eta katoliko batean. Bost anai-arreba ziren, bera gazteena. Ama jostuna eta aita arrantzalea, txikitatik jostun ogibidean aritzea izan zen bere ametsa eta orduak igarotzen zituen zirriborroak marraztuz eta, jostorratza eskuan, garaiko diseinuak imitatzen, hasieran bere amaren laguntzaz.

1907an Donostiako New England izeneko jostundegian lanean hasi zen, 13 urte besterik ez zituela. Getarian udak pasatzen zituen, Belgikako erregina Fabiola izango zenaren amaren etxean. Hau hunkituta gertatu zen gaztetxoak moda ikasteko zuen grinaz eta erronka berezia egin zion: bere soineko baten oihala eman zion eta hura kopia behar zuen, bere trebezia erakutsi zezan. Emaitzak erabat liluratu zuen markesa eta ordutik aurrera bere mezenasa izan zen.

Joskintzan trebakuntza lortu ondoren Donostiako Au Louvre izeneko denda jostun gisa hasi zen lanean. 1917an Balenciagak bere denda ireki zuen Donostian. Urtean bitan Parisera joaten zen, otsailean eta abuztuan, eta etxe ezagunetako arropa erosten zuen, ondoren Donostiako bezeroei aurkezteko. 1918an "Balenciaga y Compañía" sortu zuen, Benita eta

Daniela Lizasoainen diru ekarpenarekin. Elkarrekin sei urte iraun zuen eta arrakasta handiko garaia izan zen.

Balenciagak familiaren aldetik laguntza asko jaso zuen. Bere ama berarekin bizi zen Donostian, baita bere arreba Agustina ere, jostuna. 1919an bere anaia Juan gehitu zitzaie enpresaren kudeaketaz arduratzeko. 20ko hamarkada oso oparoa izan zen. 1927an bigarren denda ireki zuen Donostian. Espainiar monarkiak eta aristokraziak oso gogoko zituen bere diseinuak, baina espainiar gerra zibila hasi zenean bere dendak itxi behar izan zituen eta Parisera joan zen bizitzera.

Bi urte geroago, sorbalda erorien lerro berritzailea aurkeztu zuen, gerri pintaduna eta aldaka biribilak erakusten zituen. 50. hamarkadan lortuko zuen arrakasta gehiena eta bere sormenak ospe handia lortu zuen. Urte batzuk geroago, emakumearen silueta berria sortu zuen: zaku soineko abangoardista, hiru laurdeneko mahuka, baloi gonak, gerri altuak, eta hain famatuak bilakatuko ziren euritik gardenak. Hauek guztiak, botoi handiekin apainduririk.

1972ko martxoaren 24an, Carmen Martinez Bordiuren eta Cadizko dukearen ezkontzarako soinekoa egin ondoren hil zen Xabean (Alacant). Balenciaga etxeak aurrera jarraitu zuen, lurringintzan eta osagaietan bereziki. Kolaboratzaileen artean gero bere etxe propioak sortuko zituzten Andrbané Courrèges, Emanuel Ungaro, Paco Rabanne edo Hubert Givenchy zeuden.

2011ko ekainaren 7an Getarian Balenciagari eskainitako Cristobal Balenciaga museoa mustu zuten. Hura bisitatzea gomendatuko nizueke.



Itziar Perez Argomaniz kazetaria eta Ángel Pérez Miguel idazlea liburuaren aurkezpenean. ALTSASUKO LIBURUTEGIA

"Maisu eta maistrak omentzeko asmoa du"

ÁNGEL PÉREZ MIGUEL IDAZLEA

Altsasuarrak bere bigarren eleberria argitaratu du: 'Afecto dominó'. Izenburua pertsona batek sortzen afektutik dator; dominoa bizitzaren metafora bat da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Morir para contarla lehenengo eleberria bukatu ondoren hasi zen Ángel Pérez Miguel idazle altsasuarra bigarren proiektu bat idazten. Hasiera batean ipuin bilduma bat egitea bururatu zitzaion, baina pixkanaka ipuinak eleberri bihurtu ziren eta horrela sortu zuen *Afecto dominó*. Urriaren 26an Altsasuko Iortia kultur gunean aurkeztu zuen. **Nola sortu zenuen 'Afecto dominó'?** Hasierako asmoa zen bestearen guztiz bestelako zerbait idaztea.

Zentzia eta koherentzia duten eta istorio bat kontaktzen duten ipuin bildumen oso jarraitzailea naiz; Boccaccioren *Dekamerioa*, Don Juan Manuelen *Lucanor Kondea*, Chauceren *Kanterburyko ipuinak*, Nafarroako Marga-

"HERRIAK PERTSONA HORRI DION AFEKTUA ZABALDU EGITEN DA, DOMINO EFEKTU BAT BEZALA"

rita Erreginaren *Heptamerioa* edo Jorge Bucayren *Utzi kontaktzen* klasiko batzuk dira. Oso lan plan zehatza egin nuen eta idazten hasi nintzen. Lehen ipuina oraindik amaitu gabe nuenean, ipuinetako kontalarrietako bat zen herriko maisua protagonismoa eskatzen hasi zen; ez zen konformatzen narratzaile hutsa izatearekin. Bestetik, jaio nintzen herriko tabernetan, inork ez du jada kartetan jolasten, dominoak ordezkatu dituelako. Dominoak, beraz, protagonismoa nahi zuen

ere. Bi gauzak elkartuz *Afecto dominó* jaio zen. Nire maisu-maistrak eta maisu eta maistra guztiei omentzeko asmoa du, eta maisu errepublikano zahar baten eta haren domino bikotearen bitartez jokoaren aldarrikapena ere egiten du. Itxuraz xumea da, baina aukera ugari eskaintzen ditu; bizitzarekin antza handia du dominoak.

Bi liburuen artean pandemia izan da. Gehiago sortu duzu?

Pandemia madarikatua idatzi nuen arren, ez du zerikusirik izan. Espresuki pandemiak ez hitz egitea proposatu nion nire buruari horrelako hondamendi batek perspektibaz tratatzeko denbora behar duelako, eta oraindik ez zen amaitu. Agian zerbait agertzen da, nahiz eta ez nabaritu; izan ere, ziurrenik egoerak eta nire gogo aldarrea ez ziren egokienak idazteko eta, azkenean, gauza horiek eragina izan dezaketeko azken emaitza.

Zer kontaktzen du liburuak?

Maisu baten istorioa kontaktzen du. Ramon Llorente jauna hustutako Espainia delakoaren herri txiki batera joan da eta bertan bizitza berregin du Dionisio nekazari zahar baten laguntzari esker. Maisuari ez zaio batere gustatzen bere iraganaz hitz egitea. Aldi berean, Franco hil zen gauean irratsaio batean beste maisu batek, Romualdo Llamazaresek, bere bizitza kontaktzen du, Ramonaren bizitzaren oso antzekoa dena. Marta Turienzo kazetaritza ikasleak elkarriketa entzuten du eta bere errepre-saliatu bizitza kontaktzera ausartu den maisuaren iragana iker-tzea erabakitzen du. Hauek dira eleberriaren protagonista nagusiak, baina garrantzia handia dute ere Dionisiok, alkateak eta herriko apaizak. Irakurleek eleberrian zehar beste batzuek aurkituko dituzte ere. Dominoa beste pertsonaiatzat har daiteke. Eleberrian behin eta berriz esaten denez, dominoa bizitzaren metafora bat da. Herriak maisuari dion afektua zabaldu egiten da, domino efektu bat bezala. Hortik dator izenburuaren hitz jokoak.

"NIRE MAISU BATZUEN ERAGINA EDO IRRATIAREKIKO ZALETASUNA ARAKATU DAITEZKE"

Zertan inspiratu zara?

Literatura ez da bizitza, baina askotan haien arteko ezberdintasunak argitzea oso zaila da. Orduan, beti abiapuntua erre- alitate da. Istorio arraroenak, surrealistenak, fantastikoak edo misterioitsuak ere erre- alitatean inspiratuta daude. *Afecto dominó* alde batetik erre- alitatean inspiratuta dago, adibidez, bertan nire maisu batzuen eragina edo irratiarekiko zaletasuna arakatu daitezke. Bestetik, literatura inspirazio handia ere badago, batez ere lilura handia sentitzen dudan bigarren erre- publikako literaturarekiko, hezkuntzarekiko eta kulturarekiko duen interesagatik.

'Morir para contarla'-rekin alderatuz, zertan desberdintzen da?

Lehenaren irakurleek diote oso autobiografikoa dela, agian gehiegi. Ni ez nago horrekin oso ados, baina seguru asko arrazoiak dute- la. *Afecto dominó*, itxuraz behintzat, ez da hain autobiografikoa. Hori da bururatzen zaidan lehenengo desberdintasuna. Gainera, bigarrena denez, hobeto idatzita dagoela uste dut; ofizioa nabaritzen da eta. Horrek ez du esan nahi hobe edo okerragoa denik. Hori irakurleek esango dute. Nolanahi ere, autorearen iritziaz mesfidatu behar da, ez da bere lanaren kritikari ona izaten.

Nola sortzen duzu?

Ez dut planteatzen. Orain kontu- ratu naiz nire eleberrietan kon- stante batzuk daudela: beti erre- alitatek abiatzen dira, baina ez dute deskribatzen, interpretatzen dute. Bestalde, idazteko denbora, lasaitasuna eta isiltasuna behar ditut. Horregatik gauez idaztea nahiago dut. Ez naizenez idazle azkarra eta oldarkorra, testua asko eta asko lantzen dut, presa- rik gabe zuzendu eta zuzendu egiten dut. Ez dut inspirazioan asko sinesten, lan sakonean si- nesten dut.

Estiloari dagokionez, aldatu duzu?

Idazle bakoitzak bere estiloa du eta oso zaila da aldatzea. Eta ez dut aldatu nahi. Elementu batzuk mantentzen dira: Hizkuntza oso zaindua, narratzaile ugari, lehen pertsona, literaturaren presentzia, intriga eta suspensea, bizi diren gizar-tearekin konprometitutako pertsonaiak, laguntasuna, elkar- tasuna, maitasuna eta abar. Oso istorio gogorak kontatu arren, edertasunaren eta bizitzaren aldeko kantua direla uste dut. Hori nahi dut behintzat.

"Irribarrea hobetzea ahalbidetzen digu"

Etxarri Hartz Klinikako hartz estetikako konposite injektatuak izeneko tratamendu berritzaile bat martxan jarri dute. Emaiza "ikusgarriak" lortzen dituela esan du lan taldeak. Proiektuarekin oso animatuta daude

Eneida Carreño Mundiñano
 ETXARRI ARANATZ

1 Noiz jaio zen klinika?

Duela 10 urte jaio zen Etxarri Aranatz bertan; Nagusia kalea 27an gaude.

2 Zein da zuen egitekoa?


Klinika bat gara, eta aho-hortzen osasuna zaintzen saiatzen gara.

3 Zein da zuen bereizgarria?

Gure egunerokoa pasioa, esperientzia eta konpromisoa baten dira, aho osasuntsu eta polit batez goza dezaten gurera hurbiltzen direnak. Guretzat garrantzitsuena zu itzultzea da!

4 Zer eskaintzen duzue?

Odontologia zerbitzu integrala eskaintzen dugu adin guztietako pazienteentzat, haurrentzat zein helduentzat. Horregatik, gure klinikan tratamenduen katalogo zabala dugu, hala nola, PADI, Haurren Hartzak Zaintzeko Programa, Odontologia Kontserbatzailea, Prebentzio Higienea, Kazetaritza, Endodontzia, Hartz Estetika, hartz inplanteak eta ortodontziak.



Etxarri Hartz Klinikako profesionala lanean. UTZITAKOIA

5 Zenbatek osatzen duzue lan taldea?

Taldea bederatzi profesionalak osatzen dugu, esperientzia eta prestakuntza handia dutenek, dentistatik pasatzea ahalik eta atseginena izatea lortzen dutenak.

6 Tratamendu berritzaile bat eman nahi duzue ezagutzera.

Bai, berezia, erraza eta esker onekoa. Konposite injektatuak izeneko da.

7 Zer dira konposite injektatuaren kareltxoak?

Hartz estetikako tratamendu gisa hartzen dugu eta teknika ultrakontserbadore honek irribarrea hobetzea ahalbidetzen digu. Hartzak ilun, txiki edo higatuta badituzu edo forma, irudia aldatu nahi duzula honek hori ahalbidetzen du.

8 Zer abantaila eskaintzen dizkirate konposite injektatuaren karilloek?

Emaiza ikusgarriak lortzen ditugu, beste tratamendu batzuk baino azkarragoak eta merkeagoak direnak. Tratamendu guztiz itzulgarria da, eta konposite-epainak erraz eta nagi ezabatzen dira. Gehienetan, ez da beharrezkoa hartzak murriztea; beraz, kontserbatzailea da eta ez du anestesiarik behar. Azkar egiten da. Leunketa eta konponketa erregularrak behar ditu. Guk teknika hori erabiltzen dugun klinika bakarrenetariko bat gara.

9 Zertan datza?

Beti ere klinikan erabiltzen dugun Irribarrearen Diseinu Digitaleko protokoloari jarraituz, eskaner digital bat dugu, ahotik argizaria darion eredu bat sortzen

dugu, irribarre ideala dela uste dugunarekin. Hortzen tamaina, kolorea eta forma baloratzen ditugu, eta aurpegiko harmoniaren eta estetikaren barruan sartzen ditugu, hau da, aurpegiko proportzioen arabera zehazten ditugu zuretzat adierazitako hortzak. Eredu honen gainean, silikona garden batekin inpresioa hartu eta eltze batean sartzen dugu, erreproduzio zehatza lortzeko, modu trinkoan eta burbuilarik gabe. Silikonazko giltza ahoan sartuko dugu, erresistentzia eta estetika handiko konposite jariakor bat injektatzeko balioko diguna, alde aurretik sortu ditugun zulo batzuen bidez. Konposite hau argia aplikatuz polimerizatuko da. Hortzez hartz lan egiten dugu, 15 minutuko prestaketa eta pieza bakoitzeko 30 minutuko leuntzea eramanez.

10 Zenbat denbora irauten dute?

Tratamendu horietan funtsezkoa da pazienteari oklusio edo hozkada egonkor bat ematea, gure lehengoratzek babesteko, eta, beraz, arlo horretan trebatutako profesionalak egin behar dute. Bruxismoa edo objektuak hozkatzea bezalako ohiturek tratamendua egitea baldintzatu dezakete, baita maloklusio kasu jakin batzuk ere. Konposita denborekin tindatu daitekeen material bat da, eta, beraz, aldian-aldian mantendu egingo dira, leunketa bidez, eta, horrela, berriz ere berriak direla emango dute.

11 Irribarrea hobetzeko asmotan dabilenari zer esango diogu?

Hitzordua eskatu 948 46 03 15an eta tratamendu honi buruzko zehaztasun gehiago emango dizkiegula.

Udazken koloretan...
 ZURE IRUDIA ERALDATUZ

gk DISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA
 948 564 275
 www.gkomunikazioa.eus